

XX. MENDEKO HIZKUNTZA- PLANGINTZA, SABINO ARANAREN 1901EKO SAIOAREN ARGITAN

Ez da lehenengo aldia, Sabino Aranaz eta Hendaian 1901ean egindako biltzarraz diharduguna¹. Gai korapilatsua da, nolana ere, eskuartean duguna: bai jardunaldi hartaz, eta bai Sabinok hurrengo hilabeteetan izandako jokabideaz, egiarekin nekez ezkon litekeen gauza askotxo esan da. Hori dela medio, mende luzea pasa den arren orduko kontuak ez daude nahi bezain argi. Abandoarrak 1901eko biltzarrean eta, bereziki, hurrengo sei hilabetean eramandako bidea, batez ere, ez dago behar bezain zehatz argiturik. Beste zenbaiten esan-eginak ere analisi on baten premian daude. Kontu horiek (eta hurbilagoko beste hainbat) aztertu eta berrikusi nahirik, berriazko jardunaldia antolatu zuen Sabino Arana Fundazioak 2001ean, Mikel Atxaga buru zela². Lehen baino argixeago daude orain gauzak, baina ez behar bezain argi³. Egunen batean, astia badugu, helduko diogu berriro kontuari, lehen ekinaldian osorik dokumentatu gabeko hainbat zoko-moko berraztertuz eta ebaluatuz.

Ez da lehenengo aldia, orobat, XIX. eta XX. mendeetako hizkuntza-plangintzak gure artean izan dituen zoko-mokoez jardunik garena. Aitzitik, euskararen atzerakadaz kezkatutik, irtenbide bi ikusi izan dira funtsean: gaixoari hiltzen utzi⁴, edota ahuldutako hizkuntza indarberritzen saiatu. Atzerakadarenak ez du eztabaida handirik: bertako zein kanpoko askoren artean lehendik dator ustea edo komentzimendua (eta hainbaten artean kezka edo beldur-ikara), atzera doala euskara: gero eta jende

1. Biltzar bi dira berez, ez bat, kontuan hartu beharrekoak: a) 1901eko irailaren 16an Hendaian egindakoa; b) biltzar haren jarraipen moduan, handik urtebetera (1902ko irailean hortaz) Hondarribian izandakoa. Leku seinalea izan zuen Aranak lehenengoan. Bigarrenean, aldiz, besterik esan izan bada ere, ez zen izan. Motibo bat baino gehiago zuen horretarako. Garrantzitsuenak, nolana ere, bi: a) Bilboko kartzelan zegoen preso 1902ko irailean; b) 1902ko martxotik aurrera ez zuen aparteko interesik, bigarren ekitaldi horretan parte hartzeko: ez zion probetxurik ikusten.

2. Orduko (hots, 2001eko jardunaldiko) esan-eginen berri izan nahi duenak 2003an kaleraturiko liburu mar-dula du eskueran: Euskaltzaleen Biltzarren Mendeurrena. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

3. Ez dago gaia bere osoan aztertzen duen sintesi lan asko. Oso gutxi dira, orobat, Manex Goienetxeren moduko azterlan monografikoak: ikus bere 1993ko "Les origines sociales et historiques de l'association Euskaltzaleen Biltzarra".

4. Izan da, noski, hori baino jokabide gogor-mingarriagorik erabili duena: hizkuntza desagertzeko neurriak hartzen saiatu denik ez da falta izan, aginte-esparrutik beretik hasita. Halakok ez du, ordea, euskararen atzerakadaz aparteko kezkarik izan. Izatekotan poza sentitu du halakok eta, horrenbestez, beste ideologia eta beste interes-espektrora bati dagokio bere jarduna.

MIKEL ZALBIDE

EUSKALTZAIN OSOA

gutxiagok egiten duela euskaraz, gero eta solaskide gutxiagorekin eta hizkuntzaren gero eta jardun-gune, harreman-sare eta eginbehar gutxiagotan. Kontuak horrela segitzen badu, etorkizun meharra duela “gure hizkuntza zaharrak”. Uste-beldur horrek eraginik, ondoko baieztapena egin izan da maiz, XIX. mendetik aurrera⁵: “zerbait egiten ez badugu/zue/te, hau badoa”. Gogoratu Wilhelm von Humboldt⁶ edota Élisée Reclus⁷ kanpokoetan; etxeakoetan ikus Pascual Iturriaga⁸, Arturo Campion⁹ edota Felipe Arrese Beitia¹⁰. Hori dela medio, (batez ere) euskaldun askotxo saiatu izan da XX. mendean “zerbait” egiten, euskara (eta bere etnokultura) “hankazgora ez joateko”. Unealdi jakinetan zer egin den, egikera horrek zer oinarri kontzeptual eta soziologiko izan duen eta ondorioen argi-itzalak baloratzen saiatuak gara inoiz edo behin¹¹.

Lehenago kontuak lehenago direla gatozen, ordea, gaurkoetara. Izenburuak markatzen digu, beste hainbatetan bezala, gaurko ekitaldian zertaz hitz egin behar dugun. Izenburua bera nahiko argia da: XX. mendeko *Hizkuntza Plangintza* analizatu behar dugu, *Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan*. Honek zera esan nahi du, lehenik eta behin: bada hor nonbait “gauza bat”, kontzeptu edo termino bat, “hizkuntza-plangintza” izenekoa. Hori bakarrik ez: azpimarratzeko moduko “zerbait” egin zen Hendaian, 1901ean, hizkuntza-plangintzaren

alorrean. Gehiago ere ondorioztatu liteke, hartaraz gero, izenburu horretatik: azken ehun urte luzean, demagun XX. mendean, hizkuntza-plangintzaren alorreko hainbat saio egin da gure artean eta saio horiek, banan-banan deskribatzeaz gainera, S. Aranaren 1901eko paradigmaren argitan analiza litezke. Posible ote da hori guztia txosten bakarraz argitzea? Ez noski: ez burutik burura, eta neure kabuz. Hartara hurbiltzen has gaitzke ordea: lehen hurbilketa-saiotxo egin dezakegu, beste norbaitek bihar edo etzi aurrera egingo duen eta uzta joriagoa eskainiko digun itzaropenez. Denbora-tartea mugatua dugunez, gaingiroki jardun beharko dugu gehienez, funtsezko elementuetan pausatuz. Lau galdera konkreturi erantzun nahi diegu gaurkoan, behar baino erantzun xumeagoa emango badugu ere: zer da hizkuntza-plangintza?; zer plangintza-saio egin zen 1901ean, eta zer planteatu zuen bertan Sabino Aranak?; zer ibilbide, zer enfoke eta zer ondorio izan du gure arteko hizkuntza-plangintzak, XX. mendean zehar?, eta nola defini litezke ekintza-saio horiek Sabino Aranaren 1901eko paradigmaren argitan?

I.- ZER DA HIZKUNTZA-PLANGINTZA?

Gai berria eta, aldi berean, zaharra da hizkuntza-plangintza. Foro akademikoan 50 urte doi du,

**Euskararen atzerakadaz kezkatu-
ritenbide bi ikusi izan dira funtsean:
gaixoari hiltzen utzi, edota
ahuldutako hizkuntza indarberitzen
saiatu**

5. Berez lehenagotik dator kontua, elite jakinen artean bereziki: demagun, Nafarroari dagokionez, Fermin Ulzurrunen doktoreak Martin de Agoiz nafar diputatuari 1662an bertako hizkuntzaren bilakaeraz egindako gogoeta eta euskara indarberitzeko proposamena: “que en los Tribunales de dichos lugares donde hasta ahora se habla, se escriba y hable en vascuence”.
6. Wilhelm Freiherr von Humboldt: Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801. (Berrargitalpena, Donostia: Auñamendi, 1975). Ikus bertan euskararen geroaz egiten duen aurreikuspen hitsa.
7. Ikus bere saio famatua: “Les Basques. Un peuple qui s'en va”, in La Revue des Deux Mondes, 68. alea 313-340 or.
8. Ikus, adibidez, gure 2007ko “Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan”.
9. Sendoa da bere idazlangintza zabalean, gai horri eskainitako lekua. Fama 1917ko “el último tamborilero de Erraondo” delakoak eman bazion ere alor horretan, ondotox lehenagotik ari izan zen gai hori jorratzen.
10. Ikus, besteak beste, Elizondon, 1879ko Lore-jokoetan, saria jasotako Ama euskeriari azken agurrak olerkia.
11. Demagun, adibidez, 1987ko “Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak”.

baina giza arteko jardunean oso da zaharra. Robert B. Kaplan-ek honako hau esanik du, aspaldi ez dela: “in one way or another, *language planning* is as old as human civilization” (Kaplan, 2013). European, mediterraneo aldeko hego-ekialdean bereziki, urrundik dator aditu- edo aginte-esparruko hizkuntza-plangintzaren tradizio dokumentala. Gurean ere ez da atzo goizekoa gai hori, data ezagunei dagokienez ondotoz berriagoa izan arren: corpus-plangintzaren sailean ikus, adibidez, Larramendiren *Gramatika*¹² eta *Hiztegia*¹³ edota perspektiba zehatz eta zabalagorako, Koldo Zuazoren 1988ko tesi-liburua¹⁴, euskararen menderik mendeko batasun-bideari buruzkoa. Status-plangintzari dagokionez, bestalde, ikus bate-tik Bizkaiko eta Gipuzkoako batzarretara gaztelaniaz (irakurtzen) jakin gabe joateko debekua; demagun, bestetik, Arandako kondeak 1766an Nafarroako goi-arduradunei emandako agindua¹⁵, bere baimen espresurik gabe erresuma zaharrean aurrerantzean euskarazko libururik argitaratzen ez uzteko. Agintea-ren jarduera-esparru operatiboan aspaldidanik bada-tor ere hizkuntza-plangintza, aski jakintza-alor berria da esparru akademikoan: Bigarren Mundu-gerraz geroztikakoa¹⁶.

Bigarren Mundu-gerraz geroztik Estatu Batuetako esparru unibertsitarioan garatu izan da, berezki, hizkuntza-plangintza. Kontzeptu zabalago baten altzoan, hizkuntza-soziologiaren sailean alegia

Hasieran perspektiba deskriptibo eta funtzional hutsetik ekin zitzaion hizkuntza-plangintzaren ikerlanari. Handik gutxira teorizatzen hasi ziren

12. El Imposible vencido. Arte de la lengua vascongada (1729).
 13. Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence, Latín (1745).
 14. Ikus Zuazo (1988): Euskararen batasuna. Euskaltzaindia.
 15. Ikus, adibidez, Jose Maria Jimeno Jurioren 1997ko Navarra: historia del euskera.
 16. Kaplan-en hitzetan “The field is a relatively new addition to the anatomy of academia, having come into existence in the years immediately following World War II -- a period marked by the beginning of the break-up of European colonial empires and the emergence of new nations, particularly in Africa and Asia. Initially called language engineering, the discipline emerged as an approach to creating programs for solving “language problems” in newly independent “developing nations.” (Kaplan, 2013).

lehenengo adituak, mundu zabalean: batez ere XX. mendean egin izan da teorizatze-saio hori, lehenagoko mendeetan aurrekari argirik falta ez den arren han eta hemen¹⁷. Gogoeta-saio deskriptibotik oso aurrera iritsi ez bada ere maiz, *Sprachplanung*, *Aménagement linguistique*, *Language Treatment*, *Language Engineering*¹⁸, edota, bereziki, *Language Planning* delako jakintza-alorra sortu, izendatu eta hezur-mamitu izan da apurka-apurka. Jakintza-sail berriaren bide-urratzaileak eta berariazko eragileak ezagunak dira hainbatean: Bigarren Mundu-gerraren aurretik garrantzitsua izan zen hiztun-esparru germanikoaren (edo bere aginte-eremu alofonoan) eta mundu eslaboaren (zehazkiago, ez baita gauza bera, Pragako eskolaren) ekarpena. Bigarren Mundu-gerraz geroztik Estatu Batuetako esparru unibertsitarioan garatu izan da, berezki, hizkuntza-plangintza¹⁹. Kontzeptu zabalago baten altzoan, hizkuntza-soziologiaren sailean alegia, izan zuen abiaburuetariko bat: hizkuntza-soziologia edota soziolinguistika Bloomington-go unibertsitatean, *Summer Seminar on Sociolinguistics* delakoan, jantzi zen askoren ustez handiki-soinekoz, orain dela berrogeita hamar urte inguru. Hizkuntza-plangintza ere han hasi zen burua agertzen, hizkuntza-soziologia osoaren garapenarekin bat. Estatu Batuetan, soziolinguistikaren alorrean, funtsezkoa izan zen Bloomington-go unibertsitatean 1964ko udan (zortzi astez) hainbat irakaslek eta

17. Nebrixako Elio Antonioren 1492ko Gramática Castellana ez da, urrundik ere, ekimenik ahulena. Ikus William G. Milan 1983.
 18. Macmillan Dictionary delakoan ageri den definizioa, “the development of computer systems that process language for use in industry”, definizio aplikatibo posibleetariko bat baizik ez da noski. Hasierako language engineering besterik zen.
 19. Hori baino ezarpen-hedadura zabalagoa izanik du, berez, saioak: Asiako hego-ekialdea eta Israel, bereziki, berariazko aztergai izanik dira lehen unetik. Hona J. A. Fishman-ek, 1983an, aurreko hamabost urteetako jarduera nola laburbiltzen zuen: “Empirical research and theoretical formulations pertaining to language planning have benefited substantially from a rather small number of seminal conferences and projects during the past 15 years. This series starts off with the 1966 Airlie House Conference (Warrenton, Virginia) on “Language Problems of Developing Nations”, proceeds to the 1969 conference on “Language Planning Processes” at the East-West Center (Honolulu, Hawaii); reaches a crescendo with the manifold publications and meetings that grew out of the 1969-1972 “International Research Project on Language Planning Processes” which focuses on Israel, India, Indonesia, and Sweden, continues to reverberate to this very day through the Language Planning Newsletter which that project fathered, attracted the attention of a large number of Western and Third-World students at the 1977 Summer Linguistic Institute (held at the University of Hawaii, Honolulu) which was largely devoted to courses and seminars on language planning, and now, in this volumen, attempts to focus primarily on the more modern world via papers prepared in 1979. [1979ko konferentzia hura] focused on the Americas and Europe (.), on the one hand, and on differential language-planning goals (status planning and corpus planning) and foci (decision making, codification, implementation and evaluation), on the other hand” (Fishman, 1983: 381-2). Israelgo egoera geroztik ere berariaz aztertu dutenen artean ikus bai B. Spolsky-ren 1995eko “Conditions for language revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori”, eta bai B. Spolsky eta E. Shohamy-ren 2001eko “Hebrew After a Century of RLS Efforts”.

adituk eginiko mintegia. Funtsezkoa izan zen ekimen hura hizkuntza-soziologiaren esparrurako²⁰, baina ez horretarako bakarrik²¹. Mende-erdi pasa delarik ere Bloomington-go ekimenetik, gure artean ez da hartaz gauza handirik entzun, are gutxiago idatzi. Hainbat guretzat kaltean: hobeto aztertu beharko genuke Bloomington-en 1964ko mintegi hartan zer gertatu zen eta mintzajardunaren giza arteko moldaerari, perspektiba linguozentrikoaren urrezko kaiolatik atereaz, perspektiba berriz heltzen nola ikasi zen, nekez eta dolorez: unibertsitate esparruan lehenik, administrazioan gero²². Nolanahi ere, eta harira hurbilduz, egilearen hitzak aintzakotzat hartuz gauza bat dago argi: lehendik aurrelanik eginik zuen arren, Mintegi hartarako prestatu zuen Einar Haugen-ek hizkuntza-plangintzaren lau atalen, geroko lau dimentsio famatuen, matrize ezaguna. Bere hitzetan esanik “J. A. Fishman (is) referring to the fourfold problem areas, a model which **I first put into matrix form in an article** (1966) in *American Anthropologist*, **written in 1964 for Ferguson’s summer seminar in Bloomington** (Haugen, 1983: 269; letra ilun-etzana gurea).

Lehenxeago sortua izan arren terminoa²³, garai-inguru hartatik aurrera hasi zen “hizkuntza-plangintza” izendapena unibertsitate alorrean zabaltzen eta garatzen. Einar Haugen norvegiar-amerikarra izan genuen, esan bezala, izendapen hori ingelesezko mundu akademikoan lehenengoz zabaldu zuena. 1966koak ditugu bere “Linguistics and language planning” eta *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian*. Baita gai horri zuzen-zuzenean heltzen zion “Dialect, language, nation” ere. Izendapen hura hedatu eta indartu egin zen nazioarteko unibertsitate-esparruan, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, eta aski ezaguna bihurturik dugu geroztik gure artean: bai

20. Han azaldu zuen Joshua A. Fishman-ek, arrakasta handirik gabe hasieran, hizkuntza-soziologiaren alorrean aurrera zeraman langintza: ez dakigu une hartako lan osoa (Language Loyalty in the United States), ala Yiddish-ari buruzkoa soilik (Yiddish in America).
21. Christina Bratt Paulston and G. Richard Tucker editoreen eskutik argi azaldu zen 1997an, lehendik behar bezain argi ez bazegoen, Bloomington-go mintegi haren giltzarri-izaera. Ikus, irakurtzea merezi du-eta, The Early Days of Sociolinguistics: Memories and Reflections izeneko liburua.
22. Gure zenbait kontu, zahar eta berri, perspektiba globalean espilatzeke aski inportantea genuke, orain ere, bilera haren xedea kontuan hartzea. Luze-zabaleko hizkuntza-soziologian zentratu bazen ere biltzarra, zenbait aplikazio-esparru berriren artean bere lekua izan zuen ahuldutako hizkuntza indarberitzeko saioen analisiak (ikus Fishman editoreak ekarpen-egile nagusiak ordurako argitaratze-bidean zuen, eta han aurkeztu zuen, elkar-lanezko Language Loyalty in the United States erraldoia).
23. Lehendik zerabilen Haugen-ek language planning terminoa. 1959ko bere txosten batek izenburu hau du: Planning for a standard language in Norway.

Zer da, ordea, hizkuntza-plangintza? Hiztun-jendeak (hiztun batzuek, hiztun-talde jakinek edo hiztun-elkarte osoak) hitzez edo idatziz hizkuntza honetan, horretan edo hartan jardun ahal izateko gizarte alorrean dituen arazoei irtenbide egokia aurkitu eta elkargiroan adosten saiatzea

mundu akademikoan eta bai, parez pare, administrazio-esparruan eta euskalgintzaren alorrean. Nolanahi ere, *Planification* edo *Aménagement Linguistique*, *Sprachplanung* eta, bereziki, *Language Planning* direlakoak nabarmen hedatu dira nazioarteko unibertsitate- administrazio- eta RLS-esparrura, 1960ko eta 70eko hamarkadetan batez ere, eta aski ezaguna bihurturik dugu kontzeptua, azken berrogei urtean.

Zer da, ordea, hizkuntza-plangintza? Definizio bat baino gehiago eman izan zaio *language planning* edo *hizkuntza-plangintza* delakoari²⁴. Hala dira kontuak egungo egunean ere. Definizio guztiak ez datoz bat: definizio asko eman da han-hemen eta aski perspektiba diferentziaz eginik daude definizio horiek, nahiz eta hurbil samar ibili honetan edo hartan. Aditu batzuen esanean, eta ez dira azkenak zein aipatugabeenak, honelako zerbait genuke *language planning* delakoa²⁵: hizkuntzak gizarte-giro batean edo bestean dituen arazoei irtenbidea bilatzen saiatzea,

24. Hona horietariko hiru:

- a) Honela mintzo da Chris Kennedy (1982): “a preliminary definition [accepts] Language Planning as the planning of deliberate changes in the form or use of a language (or a variety), or languages (or varieties). Both planning and language use are socially-based activities and LP is generally regarded as a sub-discipline of sociolinguistics”. (Kennedy, 1982).
 - b) Language planning is an activity, most visibly undertaken by government (simply because it potentially involves such massive changes in a society), intended to promote systematic linguistic change in some community of speakers. The reasons for such change lie in a reticulated pattern of structures developed by government and intended to maintain civil order and communication, and to move the entire society in some direction deemed “good” or “useful” by government (Kaplan, 2013).
 - c) According to Tollefsen (1991), the commonly accepted definition of language planning is that it refers to all conscious efforts to affect the structure or function of language varieties. These efforts may involve creation of orthographies, standardization and modernization programmes or allocation of functions to particular languages within multilingual societies. (Wang Xiaoxue: 2015).
25. Ikus, adibidez, Jernudd, B. H. eta Das Gupta, J. (1971) lanaren muina: “the organized pursuit of solutions to language problems”.

(talde zabal edo murrizagoan) elkar hartuz²⁶. Kontuz, halere: “hizkuntza” diogunean ez dugu justu-justu “hizkuntza” esan nahi, hizkuntzak ez baitira berez hezur-haragizko eta sentimenduzko ente biziak, era bateko edo besteko “arazoak” edo “problema” izan ditzaketenak. Definizio horrek besterik esan nahi du zinez: hiztun-jendeak (hiztun batzuek, hiztun-talde jakinek edo hiztun-elkarte osoak) hitzez edo idatziz hizkuntza honetan, horretan edo hartan jardun ahal izateko gizarte alorrean dituen arazoei irtenbide egokia aurkitu eta elkargiroan adosten saiatzea: horretarako sorturik da hizkuntza-plangintza.

Definizio horrek zera esan nahi du praktikan: hizkuntza-plangintza egiten den lekuan “arazo” edo “problema” bat dagoela: hots, era bateko edo besteko “hizkuntza-arazoa” dagoela gizartean

Definizio horrek zera esan nahi du praktikan: hizkuntza-plangintza egiten den lekuan “arazo” edo “problema” bat dagoela: hots, era bateko edo besteko “hizkuntza-arazoa” dagoela gizartean. Gizarte osoan edota, maizago, gizarte horren zenbait jardun-gunetan, zenbait harreman-saretan edota zenbait adierazpidetan. Eragile batzuek (agintariek, establishment-eko elite-ordezkariek, *language loyalty*-ko protoelite jakinek, hiritarrek luze-zabalean edota, ez hain bakan, hizkuntzalariek beraiek) “problema” bat detektatzen dutela eta arazo horri konponbide egokia bilatzen saiatu nahi izaten dutela. Beste era batera esanik, “arazo”rik gabe ez dago *language planning*, *Sprachplanung* edo *hizkuntza-plangintza*-rik. Ondo dagoena konpontzen jende gutxi saiatzen da: ustez ondo ez dagoena konpondu nahiak dakar, normalean, hizkuntza-plangintza. Norbaitek duda egiten badu baieztapen horretaz, badu nora jo ilun daudenak argitzeko: aski du hizkuntza-soziologiaren

26. Gauza bera dio Joshua A. Fishman-ek 1972ko *The Sociology of Language* ezagunean. Liburuaren 1982ko erdal itzulpenean, konkretuki, definizio hau aurkeztzen du: “el estudio de la planificación lingüística es el estudio de los esfuerzos organizados para encontrar soluciones a los problemas sociales de la lengua” (Fishman, 1982: 209).

(eta sarri, horren barruan, hizkuntza-plangintzaren) XX. mendeko aditu ezagun gehienen ekarpenak arakatzea. Hartarako astirik edo modurik ez balu, aski luke ekarpen horien hainbat izenburutan *problem* hitza zein maiz agertzen den aztertzearekin²⁷. *Problema* horri aparteko garratzasuna aitortu ohi zaio zenbaitetan, *conflict/konflikt* terminoa erabiltzera iritsiz²⁸. *Arriskuan izatea* eta *hutsegite-porrota* ere maiz ageri ohi dira hizkuntza-plangintzaren alor berezi batean, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko saioen bibliografian alegia²⁹.

Zer konstruktuo edo zer paradigmatan oinarritzen da hizkuntza-plangintza? Hizkuntza-plangintzaren kontzeptuak, gorago esan dugunez, Einar Haugen du iturburu nagusietariko bat. Orain ere funtsezkoa da, plangintza zer den ulertzeko, Einar Haugen-en 1966ko atalkatze laukoitza³⁰ gogoan izatea. Hizkuntza-plangintzak lau atal zituen bere esanean: (1) norm selection, (2) codification, (3) implementation, eta (4) elaboration. Hizkuntzaren beraren garapen-bidearen lau mugari gisa ikusten zituen elementuok Haugen-ek³¹. Atal bakoitzaren definizio moduko bat ondoko taulatxoan emanik dator³²:

27. Ikus, adibidez, ondoko zerrenda laburra, erraz zabal daitekeena: Eduard Hermann-en 1929ko *Die litauische Gemeinsprache als Problem der allgemeinen Sprachwissenschaft*; Bohumil Havránek-en 1938ko *Zum Problem der Norm in der heutigen Sprachwissenschaft und Sprachkultur*; Paul L. Garvin-en 1954ko *Literacy as a problem in language and culture* eta 1959ko *The standard language problem. Concepts and methods*; John Bowers-en 1953ko *Language Problems and Literacy*; J. A. Fishman, C. A. Ferguson eta J. Das Gupta editoreen *Language Problems of Developing Nations*; Jiri V. “Neustupny-ren 1968ko *Some general aspects of ‘language’ problems and ‘language’ policy in developing societies* eta 1970eko *Basic types of treatment of language problems*; Ellis-en eta Mac a ‘Ghobhainn-en 1971ko *The problem of Language Revival*; Joshua A. Fishman-en 1984-ko *“On the peculiar problems of smaller national languages”* eta abar. Ustez hortik urruti dagoen Uriel Weinreich-en 1953ko *Languages in Contact* famatuak ere zerbait iragarzen digu, tesi-liburuaren izenburua osorik irakurtzen badugu: *Languages in Contact: Findings and Problems*.
28. Ikus, adibidez, Einar Haugen-en 1966ko *Language Planning and Language Conflict*; The Case of Modern Norwegian, Kremnitz-ek 1979an moldaturiko *Sprachen in Konflikt*; Mattheier-en 1987ko *Sprachkonflikt* eta, katalan-esparrutik begira, Argente-ren 1988ko *“Language Contact, Language Conflict and Generalized Bilingualism Policies”*. Euskaldunok hizkuntza-borroka terminoa plazaratu genuen 1977 inguruan, Aitzol izanik bide-erakusle: ikus bere 1934ko *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*. Bagenuen aurretik, are termino bortitzagoaz baliatutakorik: ikus Elissagarai-ren *guerre*.
29. Demagun, batetik, Macnamara-ren 1971ko *Successes and failures in the movement for the restoration of Irish*. Ikus, bestetik, Fishman-en beraren hainbat izenburu: 1987ko *Language spread and language policy for endangered languages*, 1991ko *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages* edota 2001eko *Can threatened language be saved?*
30. Cobarrubias (1983: 3) eta beste asko hortik abiatzen dira, *Hizkuntza Plangintzaren historia* laburra egiterakoan.
31. Honela dio Cobarrubias-ek (1983a: 3): Haugen initially conceived these stages as four aspects of language development... as crucial features in taking the step from “dialect” to “language”, from vernacular to standard. Hots, batez ere corpus planning alorrerako pentsaturik zegoen hasierako konstruktua. Ez hainbat status planning delakora.
32. Guztien iturria Cobarrubias (1983a: 3-4).

norm selection	(to choose) a language or variety for specific purposes frequently associated with official status or national roles. Norm selection is, in an important sense, making official policy.
codification	the stabilization of the norm selected. Codification presupposes norm selection and is related to standardization processes ¹ .
implementation ²	the activities of governmental agencies, institutions, and writers in adopting and using the selected and codified norm ³ .
elaboration	the expansion of language functions and the assignment of new codes, such as scientific and technological. Language modernization is of the most common activities ⁴ .

Horrekin batera, eta handik gutxira (1969an), Heinz-Kloss-en ekarpena izan zuen³³. Neustupny eta Rubin agertu geroxeago, Fishman-ekin batera, hizkuntza-plangintzaren atala osatuz, aberastuz eta zehaztuz. 1983an, aurreko ekarpen nagusi horiek kontuan hartuz eta bere hasierako matrizean txertatuz, formulazio hau eskaini zuen Einar Haugen-ek.

	Form (policy making)	Function (language cultivation)
Society (status planning)	1.- Selection (decisión procedures) a. identification of problem b. allocation of norms	3.- Implementation (educational spread) a. correction procedures b. evaluation
Language (corpus planning)	2.- Codification (standardization procedures) a. graphization b. grammatication c. lexication	4.- Elaboration (functional development) a. terminological modernization b. stylistic development

Orain ere hizkuntza-plangintzaren erreferentzia nagusietako bat dugu formulazio hori. Bistan da gauza asko falta dela hor, hizkuntza-plangintzaren eremua bere osoan eta bere bereizkunde sendonekin osorik jaso ahal izateko. Une bateko ikuspegia eta terminologia ganoraz ulertu eta barneratzeko

33. Cobarrubias-en esanean (1983a, 3): "[there are] at least two sources in language planning: Haugen's (1966) language planning model and Kloss's (1969) distinction between language status planning and corpus planning".

Gizartean hizkuntza batek "behar lukeen" erabilera eskuratzeko prozedurez ari da *status*-plangintza. Hizkuntza hori gizarte berrirako baliabide egoki izan dadin bere barne-osaeran eta ingurumarian egin beharreko egokitze-lanak ditu *corpus*-plangintzak gogoan

aski argigarria da ordea. Baita alor honetako azalpen jantziak gizarte-perspektiban egituratzen laguntzeko ere. Taula horretako terminoez eta sailkapen-ereduaz baliatuko gara beraz gaurko txosten honetan, marko horri egin behar zaizkie gehikuntzak erantsiz aldian-aldian. Norbaitek galdetuko du, ez arrazoirik gabe: zein gehikuntza dira horiek? Konstruktuteoriko gisa zenbait mugarri argi izanik ditu jakintza-eremu horrek eta, mugarri horietariko hainbat 1983ko matrize horretan txertaturik badaude ere, beste zenbait ez. Zein bai eta zein ez? Sei mugarri modu aipatu behar dira, gutxienez, 1966ko lehen eredutik gaurko formulazio ezagun eta operatiboenetara. Bistan da mugarri gehiago ere defini litezkeela, baina eskuartean dugun gaia azaltzeko aski direlakoan nago. Sei mugarriok aipatuko dira beraz, hemen: batetik *status*- versus *corpus*-plangintza, hizkuntza-eskubideen *lurralde*- versus *norbanako*-irizpidean oinarrituriko hizkuntza-plangintza bestetik, hurrenik *eskuratze*-plangintza, gero *goitik beherako* versus *behetik gorako* plangintza eta, azkenik, *berariazko* versus *aurre aurreko* plangintza. Ikus ditzagun seiak, labur-labur:

- Mugarri handienetarikoa, askoren ustean, Heinz Kloss-ek ezarri zuena da: 1969an, Quebec-en argitara emandako ekarpen famatuan, finkatu zuena alegia³⁴. Hizkuntza-plangintza bi atal nagusitan banatu zuen Kloss-ek: *language status planning* batetik, eta *language corpus planning* bestetik. Gure artean, hizkuntzaren *status-plangintza* eta *corpus-plangintza* esan ohi zaie horiei, hurrenez hurren. Gizartean hizkuntza batek "behar lukeen"

34. Ikus Research Possibilities on group bilingualism: a Report. Quebec: International center for research on bilingualism.

erabilera eskuratzeko prozedurez ari da *status-plangintza*. Hizkuntza hori gizarte berrirako baliabide egoki izan dadin bere barne-osaeran eta ingurumarian (ortografian, gramatikan, hitz-altxorrean eta estilo-lanketan) egin beharreko egokitze-lanak ditu *corpus-plangintzak* gogoan.

- *Cultivation*, edota hizkuntza bera ekinez, hitzez eta (bereziki) idatziz, lantzea. Neustupný-k, Pragako eskolak Txekiako esperientziatik jasotako eskarmentua kontuan izanik³⁵, aparteko garrantzia eman zion hizkuntza lantzeari³⁶. Puntu hori ahul samar ikusten zen Haugen-en hasierako formulazioan. Ortografia, gramatika eta hiztegiak ondo daude, baina gero hizkuntza hori bere "tornua" emango dioten idazleak behar dira. Landu egin behar da hizkuntza, gaitu eta trebatu, ordura arte idatzizko jardunean eta formaltasun maila batean falta izan zaizkion baliabideak eskuratu, hedatu eta etxekotzeko³⁷. Hori ere kontuan hartu behar du hizkuntzaren corpus-plangintzak, hasieratik beretik huts egin nahi ez badu.

- *Evaluation*, edota emandako pausoen ondorioak neurtzea. Joan Rubin-ek, beste hainbat oharrekin batera, ekarpen garrantzitsua egin zuen 1971ko bere "Evaluation and language planning" famatuan. Hizkuntza-plangintza ez da "behin eta betiko" egiten den kontu isolatua eta bakarra, "behin eta berriz" aplikatu beharreko prozedura jarraia baizik. Aplikazio-aldi bakoitzean xede-helburu batzuk markatzen dira, eta helburu horiek zer neurritan bete diren, eta zer neurritan ez, neurtu behar izaten da ganoraz. Neurketa horren emaitzaren argitan, bideberritzea egin beharra ikusten da maiz, honetan edo hartan. Funtsezkoa da ebaluazio-lan hori, emandako pausok nora eraman gaituzten jakiteko eta bide-okertze posibleak zuzentzeko. Gaur egun ez da hizkuntza-plangintza ganorazkorik planteatu ere egiten, foro akademikoetan³⁸, ebaluazio-atal hori gabe.

- Hizkuntza-eskubideen *lurralde-irizpidea* versus *norbanako-irizpidea*. 1975ean, bitan banatu zuen McRae-k glotopolitikaren esparrua, hizkuntza-eskubideak norbanakoaren edota lurraldearen gainean eraikiz: "The principle of territoriality and the principle of personality in multilingual states" zuen bere ekarpen-artikuluak izenburutzat. Funtsezko ekarpena izan da McRae-ren hori, jurilinguistikaren eta glotopolitikaren sailetik. Inpaktu handia izan du ekarpen horrek, bai hizkuntza-plangintzaren alor akademikoan eta bai, bereziki, estatu eleanitzen edota bertako herrialde beregainen lege-marko nagusian. Tartean, eta besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuan eta 1982ko Normal-kuntza Legean. McRaeren arabera aukera bi daude funtsean, hizkuntza bi edo gehiago duten gizarteetan, hiztun batzuen eta besteen hizkuntza-eskubideak arautzeko: hiztun-elkarte bat asentatzen den lurraldea, edota hiztun-elkarte horren partaide den norbanako hiztuna. Irizpide baten arabera Lurraldeak berak determinatzen du zer lekutan zer hizkuntza den baliozko, legezko eta haizu biritza publikoan³⁹, eta bestearen arabera pertsona da eskubideen oinarri eta jomuga nagusi⁴⁰. Irizpide batean edo bestean oinarrituriko hizkuntza-plangintza oso da diferentea, gizarte garatu demokratikoetan. Irizpide bakoitzak bere argi-ilunak ditu, Fishman-ek argi eta zehatz azpimarratu zuenez⁴¹, baina ezin saihestuzko elementua da hori hizkuntza honen edo horren status-plangintza bideratzerakoan.

- *Acquisition planning*, edo eskuratzeko-plangintza. Heinz Kloss-en 1969ko dikotomia argiari hirugarren atala erantsi zion Robert L. Cooper-ek

35. Ikus, besteak beste, Bohuslav Havránek-en 1964ko "The Functional Differentiation of the Standard Language" eta P. L. Garvin-en bi hauek: 1954ko "Literacy as a problem in language and culture" eta 1959ko "The standard language problem. Concepts and methods".

36. Ikus 1970eko bere "Basic types of treatment of language problems", in Linguistic Communications 1: 77-98.

37. Horrela ulertu behar da, gure ustez, Fishman-en 1983ko aitormen hau: "[T]here is a growing awareness that language planning operates at morphosyntactic levels rather than "only" at lexical ones".

38. Besterik da, zoritxarrez, hortik kanporako praxia. Bagenuke euskaldunok, alferlanean ez ibiltzeko, ebaluazio-lanari begirune handiagoa izateko motiborik. Euskalgintza osoa dago, gure ustez, funtsezko irizpideen araberrako berrikustapen horren beharrean. Aitzol baten, Lizardi baten, Mokoroa-lbar baten eta Seber Altube baten 1930-36 epealdiko ebaluazio-azalpenak argigarriak dira orain ere.

39. Etxean, lagunartean eta bizibide informal-pribatuan norberak erabaki dezake, legeari dagokionez, kasu batean zein bestean zer hizkuntzatan egin. Badakigu hori ere ez dela justu-justu horrela: aurrez aurreko jarduerara arruntean bertan ondotoz konplikatua da egoera, perspektiba soziolinguistikotik. Ikus, adibidez, 2009ko nire "Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan". Ikuspegi jurilinguistikotik ari da McRae, ordea, eta alde horretatik baliozkoa da hori.

40. Horrela esanik badirudi eguna bezain argia dela bereizkundera. Praktikan, ordea, ondotoz ilunago dira kontuak. Behin baino gehiagotan saiatua naiz, aparteko garrantzia baitu irizpide bikoitz horrek gure lege-marko nagusian, kontu hori zertxobait argitzen: ikus, adibidez, Zalbide 1990, 1998, 2000, 2002a eta 2007 (edo 2010a).

41. Hona bere hitzak: "Another dichotomy often mentioned (...) pertain to the distinction between the personality principle and the territoriality principle as the legal bases of for status planning. The focus on individual rights (personality principle) does not easily provide ethnolinguistic minorities with strong status-planning protection for their collective cultural processes and institutions. On the other hand, the focus on group rights (territoriality principle) often leads not only to the violation of individual rights but to dangers for the overarching (interethnic) political enterprise. Thus, individuals, minorities, majorities, and totalities may represent incommensurable interests such that even solomonic status planning (were we able to engage in tit) could not simultaneously satisfy them all". (Fishman, 1983: 382).

1989an⁴²: *acquisition planning* edo *eskuratze-plangintza*⁴³. Atal biko esparruaren ordean hirukoa eratu zuen berak, L1 edo L2 eskuratzeko bide informalak eta formalak berariaz bilduz hizkuntza-plangintza-aren konstruktura, bere bizkarrezur nagusira. Bada motibo sendorik, eskuratze-plangintza aurrez aurre analizatzeko. Hizkuntza-plangintza hezuramitzeko orduan aparteko lekua aitortu ohi zaie, han-hemen, eskola bidezko ekimenei. Gero sartuko gara ekin-bide horren balorazioan. Diogun hemen, atariko gisa, 1901eko ekitaldian bere leku jakina izan zuela eskola bidezko hizkuntza-plangintzak, Cooper-en hitzetan *acquisition planning* edo *eskuratze-plangintzak*.

- *Top-down versus bottom-up language planning*: hots, *goitik beherako ala behetik gorako plangintza*. Arrasto sakona utzi du zatibitze kontzeptual horrek ere, hizkuntza-plangintza-aren alorrean. Ordura arteko zatibanatze horizontalari bertikala, zutikakoa, erantsi diote Robert B. Kaplan-ek eta Richard B. Baldauf-ek: ikus 1997ko *Language Planning; from Practice to Theory*⁴⁴. Baldin “hizkuntza-plangintza, zer konpontzeko?” bazen Kloss-en 1969ko dikotomia zurkaizten zuen galdera nagusia, “hizkuntza-plangintza, nork-nola?” galderaren inguruan billatu da 1997koa: *goitik behera*, aginpidez, egin liteke hizkuntza-plangintza, edota *behetik gora*, jendearen partehartze xume baina eragingarri. Lehenengoari, kontua askotxo sinpletuz labur beharrez, “*top-down language planning*” esaten diote Kaplan-ek eta Baldauf-ek; bigarrenari, berriz, “*bottom-up*”. Euskaraz “*goitik beherako*” eta “*behetik gorako* hizkuntza-plangintza” esan ohi diegu, hurrenez hurren. Funtsezko dikotomia da hori, euskaldunon XX. mendeko euskalgintza ulertzen eta kontzeptualizatzen saiatzeko.

- *Berariazko versus aurre aurreko plangintza*. Hamarkada berean, eta hurrengoan, azken dikotomia eratu da hizkuntza-soziologiaren alorrean: bai hizkuntza-soziologiaren esparru teorikoan eta bai, partez, bere aplikazio-eremu den hizkuntza-plangintza-aren sailean: *berariazko* ekimena versus *bide batezkoa*, terminologia batez edo bestez, indar hartuz joan da hori dela medio. Teorizatzen asko-asko saiatu ez bagara ere ezagun samarra dugu euskaldunok, jarduera praktikoz eta bestelako eskarmentuz, zatibitze-alor hori. Euskara indarberritzeko lan gehienak berariaz egin ditugu XX. mendean, baina erdararen

zabalkunde nabarmena eta lur-zein funtzio-irabazte ohargarria bide batezko jardunak bultzaturik gertatu da hemen, hein handi batean. Hori ez da hemen bakarrik gertatu, eta adituen artean aparteko garrantzia aitortu zaio bereizkunde horri ere: “berariazko plangintza” definitu da batetik, eta “bide batezkoa” bestetik. Kanpoko adituen ekarpenari dagokionez ikus, status-plangintza-aren ikuspegitik, Baldauf-en “Unplanned” Language Policy and Planning⁴⁵. Corpus-plangintza dagokionez ikus J. A. Fishman⁴⁶ eta, bereziki, Shelomo Morag⁴⁷. Etxeko perspektibarako ikus Zalbide 2007⁴⁸. Berariazko eta bide batezko corpus-plangintza dihardugu hor, hein batean. Status-plangintza-aren ikuspegia ere lasai asko erants daiteke ordea: nork esan du Bizkai-Gipuzkoetako arnaguneetan azken mende-laurdenean eragin dugun etxegintzak arnagune horien geroan (eguneroko mintzajardun arruntean eta, horrenbestez, euskal bizitasun etnolinguistikoaren geroan) mehatxuzko eragin bortitza izan ez duenik?

Top-down versus bottom-up language planning: hots, goitik beherako ala behetik gorako plangintza. Arrasto sakona utzi du zatibitze kontzeptual horrek ere, hizkuntza-plangintza-aren alorrean

Azken ohar-parea, hizkuntza-plangintza: a) mintzajardunaren giza arteko moldaeran, hizkuntza-aren beraren barne-osaeran edota hizkuntza L1 edo L2 moduan eskuratzeko bideetan arazoren bat nozitzen, detektatzen edo aurreikusten denean ekiten zaio, normalean, hizkuntza-plangintzari. Oker jokatu genuke, halaz ere, hizkuntza-plangintza arazo- edo problema-perspektibatik bakarrik aztertuko bagenu. Jakintza-esparru horrek, eta hizkuntza-soziologia osoak oro har, *theory-driven versus*

42. Etengabeko joan-etorria dago data horrekin: batzuek 1989an jartzen dute argitalpena, eta besteek 1990ean. Bego kontua horretan, alferlanetan sartu gabe.

43. Ikus 1989ko bere Language planning and social change.

44. Multilingual Matters.

45. Annual Review of Applied Linguistics (1993/1994) 14, 82-89.

46. Bere hitzetan esanik “language planning itself is often but the plaything of larger forces” (Fishman, 1983: 383).

47. Corpus-plangintzari dagokionez ikus 1959ko “Planned and Unplanned Development in Modern Hebrew”.

48. Izenburu hau du ekarpen horrek: “Iparaldeko euskalgintza, XIX. mendean bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia”.

(social) *problem-driven* perspektiben arteko tirabira du bere baitan, hasiera samarretik, eta egia da *problem-driven* perspektiba maiz agertzen dela bibliografian, gorago ikusi dugunez. Jakite-lanketa horren zati on bat teoria arauz eratzen saiatu dira ordea bertako aditu nagusiak, eta hori ezin da alde batera utzi. Funtsean biak (ez *problem-driven* ikuspegia eta hurbilbidea bakarrik) dira hizkuntza-plangintza-aren alorrean zuhur jokatu ahal izateko kontuan izan beharrekoak; b) Plangintza-aren kontzeptua bera ez da, bestalde, guztien gogoko. Hizkuntza-aren geroa planifikatu egin litekeeneko oinarri-hipotesiak ez aginte-esparruan eta ez akademikoan jaso izan du beti txalo-zartada handirik. Lehenengo esparruari dagokionez, ezaguna da estatu-nazio beregaineko

**Beti indartsuaren alde ari den
“Laissez faire” jokabidea gutxitan
kritikatu ohi da perspektiba
sozio-filosofiko horretatik abiatzen
direnen artean**

hainbat agintarik edo ordezkari, ustez borondate-rik onenaz, egin ohi duen galdera: <<zer problema daukate bada gure herikide horiek, “guztion hizkuntza” ikasi nahi ez izateko edo “guztion hizkuntza” egin nahi ez izateko?>>. Ustez “berez” datorren “bilakaera natural”ari aurre egin nahia (ahuldutako hizkuntza indarberritu nahia, bereziki) susmo txarrez hartu ohi da sarri, eta hartara bideraturiko plangintzak onespren meharra jaso ohi du. Aspalditxotik antzeman izan da, han eta hemen, hizkuntza kontuetan interbenitzea, jendearen mintzamenen “eskua sartzea”, aieruz hartu ohi dela: beldurrez, errezeloz edota, zenbaitetan, desadostasun agiriz. Bai hizkuntza-aren barne-osaeran interbenitzea, eta bai jendearen mintzajarduna (norberarena ez den) hizkuntza baten aldera makurraraztea, kezka-iturri izan ohi da maiz. Aspaldi samarrekoa (1950ekoa) da, kanpoko adibide ezagun bat baizik ez aipatzearen, Robert A. Jr. Hall-en *Leave your Language Alone!*.⁴⁹ Hain

49. Ithaca, N.Y., Linguística.

urrutira joan gabe ere izan du ikuspegi horrek, gure artean edo inguruan, detraktore zorrotzik. Haizeari atek jartzea bezain alferrikakoa iruditzen zaie horietariko batzuei hizkuntza-plangintza. Beste batzuen aburuz, alferlana ez bada ere kaltegarria da (edo hala izan liteke). Beti indartsuaren alde ari den “Laissez faire” jokabidea, aldiz, gutxitan kritikatu ohi da perspektiba sozio-filosofiko horretatik abiatzen direnen artean. Beldurrak beldur eta kezkak kezka, eguneroko praktika zabalak ebatzi du eztabaida, zenbait muga-arazok zutik dirauen arren: hizkuntza eta hiztun-elkarte handi, sendo eta osasuntsuek beren alde gogotik egiten duten hizkuntza-plangintzak zergatik izan behar du alferlan edo kaltegarri txiki-ahulentzat? Konstatazio etengabe hori dela medio, “problema” kutsua oso barruan eramanik ere jakintza-esparru gisa bere lekua eta balioa irabazirik du hizkuntza-plangintzak, han-hemen. Hartan buruzagi izanikako Fishman-en esanean “in a few years language planning has fully established itself as a recognized topic not only within the sociolinguistic enterprise (both theoretical and applied) but also within the fields of linguistics and social theory more generally. It would be a foolhardy linguist indeed who would now dare to discuss language change without attending to language planning as well, just as it must be a foolhardy sociologist who would work on social change in ignorance of social planning” (Fishman, 1983: 381).

II.- ZER PLANGINTZA-SAIO EGIN ZEN 1901EKO IRAILEAN, HENDAIAN; ZER PLANTEATU ZUEN BERTAN SABINO ARANAK?

Atzekoz aurrera hasiko gara, puntu hau argitzen. Luzaro (ehun urtez-edo) esan izan da, erabateko frakasoa izan zela Hendaia-ko jardunaldia: zehazkiago, bai Hendaia-koa eta bai, bereziki, handik hamabi hilabetera bere jarraipen Hondarribian egirikakoa. Kulpantea ere argi seinlatu izan da maiz: Sabino Arana eta bere “energumeno bizkaitarristak”. Bere lokarriko 320 bizkaitarrista ezjakinek lehertu omen zuten biltzarra eta, hein batean, horregatik jarraitu izan omen dugu luzaro ortografia bateraturik gabe. Ez da hau Sabino Arana aldareetara igoarazteko lekua eta unea, eta ez naiz inoren hagiografolan jarduteko pertsona aproposena. Bistan da ordea, guztiarekin ere, urrun dagoela ikuspegi partisano hori Hendai-Hondarribietan 1901ean eta 1902an bizi izandako gertakari multzo zabal, ñabar eta multipolarretik. Gauzak ez ziren, zehatz-mehatz,

horrela izan. Bistan da Aranak nekez justifikatu litekeen bidea hartu zuela une batez, baina aurretik beste hainbat biltzarkideek Sabinoren ezjakinean eta bere aurka egindakoak isilduz edo justifikatuz ezin da epai orekaturik atera. Hori bakarrik ez: Aranak Hendaian irakurritako txostenak aparteko garrantzia du, hizkuntza-plangintzaren perspektiba teorikotik⁵⁰. Erreferentzia alboraezina da txosten hura orain dela ehun urte inguruko euskalgintza antolatuaren analisi sakona egin nahi duen ikertzailearentzat. Aparteko garrantzia du, batez ere, gutxien aipatzen den atalak: txostenaren lehen parteak⁵¹. Saiatu izan naiz inoiz orduko esan-eginak argitzen. Orduan esandakoak ez dira hemen luze-zabal errepikatuko, ez baitago hartarako lekurik. Sintesi moduko zerbait gogoraztea komeniko da, halere, Aranaren orduko esan-eginak perspektiba soziolinguistikoan txertatu ahal izateko. Hona, beraz, gaurko azalpen laburra.

Aparteko biltzerra egin zen Hendaian, 1901eko irailean, hizkuntza-plangintzaren alorrean. Euskararen ortografia bateratzea (zehazkiago, bateratzeko lehen urratsak egitea) izan zuen biltzar hark helburu. Zazpi Probintzietako eta aski ideologia-espektro zabaleko euskalariak eta euskaltzaleak bildu ziren bertan: gutzira 35 lagun, eskueran ditugun datu mugatuen argitan. Biltzar hura frakaso handia izan zela esan izan da maiz, eta orain ere ez dut uste iritzi ezkor hori baztertua dagoenik. Egia da gatzik eta piperrik ez zela falta izan 1901eko Biltzar hartan, baina eguna ondo samar joan zen oro har eta, garrantzitsuago dena, hizkuntzaren bateratze ortografikoa konpontzeko lan-metodologia konkretua onartu zen bertan, eta hurrengo hamabi hilabeteetarako (Hondarribian egingo zen bigarren biltzarrerara arteko) lan-egutegia xehetu. Frakaso kontuak gerokoak dira, berez, ez Hendaiaikoak. Luze joko luke geroztikako haserrebidetarik mikatz hura hemen orain zehazteak.

50. Paper hura eskuratzeko ez da batere lan erraza gertatu. Luzaro saiatu ginen horretan, funtseko elementua izan zitekeela susmatzen baikenuen, baina ez zen batere lan samurra. Asko kostatu da lortzea. Hendaiaiko 1901eko akta-dokumentu ganorazkorik ez dagoenez (gaurkoz), hantzen barreiaturik dauden argitasun-printzak biltzen eta lotzen saiatu izan behar genuen: urteak pasa genituen horretan, ustez leku apropos izan zitekeen hainbat biltegitara hurbilduz: Baionako Euskal Museoaren artxiboa miatzeko aukera izan genuen horrela, besteak beste. Bilketa-lan horietan ari ginela, halako batean, zera jakin genuen: JEL aldizkarian argitaratu zela, 1908an, Sabino Aranaren Hendaiaiko txosten hura. Arratira joan ginen, Abertzaletasunaren artxibo monografikora, eta bai: 1908ko JEL aldizkaria han zegoen. Baina artikulua ez: guraizez, artaziz ebakita zegoen, auskalo nork, noiz eta zergatik, Hendaiaiko txostenaren artikulua hura. Azkenean Derioko liburutegian lokalizatu ziguten, eta horrela dugu orain ezagun. Eskerrik beroenak zor dizkiegu odisea txiki hartan bidaide izandako guzti-guztiei.

51. Ahuldutako hizkuntzak (hots, ahuldutako hiztun-elkarteak) indarberritzeko aplikatu ohi diren neurri ezagunen ebaluazio-lan sendoa egin ondoko lehentasun-eskema baliagarria eskaintzen da bertan.

Sabino Aranak aurkeztu zuen Hendaian, daktularik, idatzizko proposamen bakarra. Berea izan zen euskararen ortografia bateratzeko biltzarkideek aztergai izan zuten metodologia-proposamena eta lan-agenda. Oso gaitzetsia izan da gero proposamen hura, ia inork inoiz irakurri izan ez badu ere. Sabino Aranaren proposamen hura funtsezkoa da, ordea, 1901eko udazkeneko bere gogo-aldartearen (tartean bere *fase espainolista*) eta, bereziki, hizkuntza-soziologiaren alorreko paradigma-lanketa berria ulertzeko eta baloratzeko. Baita ere, nola ez, XX. mendeko plangintza-saioek gure artean izandako argi-ilunak paradigma argi eta landu baten aurrez aurre aztertu ahal izateko. Alde horretatik funtsezko lau elementu ditu, funtsean, Sabino Aranaren 1901eko txostenak:

- *Corpus*- eta *status*-plangintza ongi bereizi behar dira, bata eta bestea elkarren arri-muan hazten eta garatzen badira ere sarri;
- *Corpus*-plangintzan jardutea alferlana da kasik, *status*-plangintza koherente batean txertatzen ez bada;
- Eskola ez da, eta ezin liteke izan, ahuldutako euskara sendo indarberritzeko saio globalaren muin eta motore; eta
- Euskalgintza osoa giza arteko mintzajarduren perspektiba sozialean txertatu behar da, atarramentu onik izango badu.

Besterik ere azaldu zuen Aranak Hendaian. Txostenaren bigarren partean, horrela, une hartan euskalari eta euskaltzale askoren ustean lehentasun osoa zuen *corpus*-plangintza jorratu zuen. Konkretuki, euskararen batasun ortografikoa eskuratzeko prozedura bat proposatu zuten biltzarkideei. Horren aurretik, eta gure ustez horren gainetik, hizkuntza-plangintzaren (orduko, oraingo eta betiko) ardatz nagusiak definitu zituen argi. Bere azalpen hura xeheago ere eman liteke, baina funtsean goiko lau puntu horietara bil liteke. Ikus ditzagun lau puntuok, halako xehetasun batez:

Sabino Aranaren proposamena funtsezkoa da 1901eko udazkeneko bere gogo-aldartearen eta, bereziki, hizkuntza-soziologiaren alorreko paradigma-lanketa berria ulertzeko eta baloratzeko

a) **Corpus- eta status-plangintza ongi bereizi behar dira.** Bata eta bestea elkarren arri-muan hazten eta garatzen badira ere sarri, ongi berezi behar dira atal biok: oso diferenteak dira biak aplikazio-esparruz, eragilez, lan-prozeduraz eta ondorioz. Argi bereizi behar dira, beste hitzetan esanik, *corpus-* eta *status-*plangintza. Aranak ez zerabilen artean, bistakoa denez, gero (batez ere 1960ko hamarkadan eta ordutik hona) garatu den terminologia teknikoa: berak ez dio inon “planificación lingüística” edo antzekorik erdaraz, are gutxiago euskaraz. Bere azalpenak oso argiak dira ordea, ehun urte luzeren buruan. Orain ere lehen begi-kolpean jaso ohi du azalpenaren muina, aparteko eragozpenik gabe, euskaltzale edo euskalari adituak. Bere hitzetan esanik, “para que el euskera se levante y viva son indispensables a la vez dos cosas: hacerlo necesario para la vida, en grande o pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto de satisfacer esas necesidades”. Batetik status-plangintza modu bat

Sabino izan genuen, hortaz, gure artean hizkuntza-plangintzaren gaia, kontzeptualki eta bere osotasunean lehenengoz definitu eta mugarrizatu zuena

definitzen du hor: izan diren eta izan litezkeen status-plangintza posible ugarietariko bat. Konkretuki, Joshua A. Fishman-ek handik 90 urtera *Reversing Language Shift (RLS)* bataiatu zuena eta guk, hobetik ezean, aspaldiko urteotan *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea (HINBE)* moduan eman ohi duguna. Baliteke Sabinoren aurretik gure arteko norbaitek halakorik esan (eta han edo hemen idatzirik utzi) izana. Litekeena da hori baina, bazterrek batera eta bestera jiratu ditugularik, ez dugu horren aurrekari argirik lokalizatu: hurbilena Iturriaga genuke, baina hark ere ez zuen formulazio integratu hori espresuki azpimarratu. Hots, baliteke Sabinoren aurretik gure artean beste norbaitek hori bera esanik izana, baina ez dugu horren berri. Kontuak horrela badira Sabino izan genuen, hortaz, gure artean hizkuntza-plangintzaren gaia, Heinz-Kloss-en zati-banatze dikotomikoaren arabera, kontzeptualki eta bere osotasunean lehenengoz definitu eta mugarrizatu zuena. Bere ondoko hainbat euskaltzaleren ekarpenetan, bai

Koldo Eleizalderen Oñatiko biltzarrekoan, bai Seber Altuberen saioetan eta bai Koldo Mitxelenaren hainbat idazlanetan, bada horren arrasto garbirik. Zerbaitetan (Oñatikoan adibidez) perspektiba globaletik egin izan da hori, eta beste batzuetan (Mitxelenaren Arantzazuko txostenaren abiaburuko pasarteetan adibidez), perspektiba sektorialetik (azken kasu honetan euskarazko irakaskuntzarenetik). Ez zen ordea etxean bakarrik bide-urratzaile gertatu Sabino Arana. Nazioarteko perspektiban ere ildo-berritzaile eta aurrelari gertaturik da abandoarra bere zati-biketa hartan. H. Kloss-en aurretik, 68 urtez aurretik, ibili zen horretan Sabino. Inork ez dio, Hendaiako biltzarretik ehun urte luze pasa direlarik, berritasun hori aitortu.

b) **Corpus-plangintzan jardutea alferlana da kasik, status-plangintza koherente batean txertatzen ez bada.** Hizkuntza txikiak indarberritu edo biziberritu nahi badira, gakoa ez dago *corpus-*plangintzan, *status-*plangintzan baizik. Bistan da hizkuntza osasuntsuek, galtzeko arriskuan ez dauden eta urteetako beregaintasun soziokulturala eta politiko-operatiboa izan dutenek bereziki, ahoz eta (bereziki) idatziz jarduteko eredu estandarra eskurtua dutela: alde horretatik bide bat markatzen dute, hizkuntzen garapen-bidea. Batasun-lan hori buruz eta neurritz egiten bada euskarari ere on egin behar dio hortaz, ez kalte. Gauza bat da ordea neurri bat onuragarri izatea, eta beste bat lehentasun handikoa izatea. Ahuldutako hizkuntza, orain dela ehun urteko euskara, indarberrituko bada soluzio nagusia ez da ortografia bateratzea, bere ohiko hitz-altxorra osatu eta eginkizun berrietara zabaltzea, hizkuntza hori errejistro jaso-formaletan egoki erabiltzeko gramatika-arauak prestatzea eta abar, hizkuntzari (aginte-esparrutik normalean) *status* ofiziala edo *de facto*-zko lejitimazio soziala eskuratzea baizik, gizarte-bizitzaren zenbait esparrutan (ahalik eta gehienetan) lehiakiderik gabe erabilia izateko. Bere hitzetan esanik: “Hacedlo (euskara alegia) necesario, en grande o pequeña escala, a la vida social dentro del territorio de la raza a que pertenece (..) y al mismo tiempo (ez horren aurretik) hacedlo capaz de llenar esas necesidades (..) y entonces tened por seguro que el euzkera vivirá vida propia, lozana y próspera (..)”. Ortografia, gramatika eta hiztegi hobereenak alferrik dira euskara hondamenditik salbatzeko, horien aurretik edo horiekin batera hiltzorian dagoen hizkuntzari eguneroko gizarte-bizitzan bere-bereak izango dituen jardun-guneak eta giza arteko harreman-sareak atxikitzen ez bazaizkio. *Status-plangintzaren*

egitekoa da, ez *corpus*-lanketarena, hizkuntza ahulari jardun-gune eta harreman-sare horiek ziurtatzea. Segun zer jardun-gune eta harreman-sare eskuratu nahi zaizkion euskarari, halako *status*-plangintza eratu ere beharko da. Eta orduan, ez lehenago, has gaitzke *corpus*-plangintza egokiaz hitz egiten. Segun hizkuntza horrek zer jardun-gune, harreman-sare eta funtziotan nagusitasuna eskuratzen duen, horren arabera izan beharko du, garapen-mailaz eta hedaduraz, bere ortografian, lexikoan eta gramatikian egin nahi den eguneratze-saioak ere. *Status*-plangintza horren arabera, eta horren zerbitzari, izan beharko baitu *corpus*-plangintzak.

c) **Eskola ez da, eta ezin liteke izan, ahuldutako euskara sendo indarberritzeko saio globalaren muin eta motore.** Literatura-lanketa ere ez. Hartarako lagungarri on (eta, hainbatean, ezinbesteko) da euskal eskola (gogoratu Mitxelenaen 1968ko txostenaren lehenengo pasartea), baina tren osoa bere kabuz aurrera eramango duen lokomotorea ez da batasun-lantze hori. Beste horrenbeste gertatzen da, Sabino Aranaren esanean, euskarazko literatura-lanketarekin. Bere hitzetan esanik “es general hoy la ilusa y frívola pretensión de cosechar el fruto sin cultivar la planta; hay obstinado empeño en empezar por donde tenemos que concluir; confúndese lastimosamente el efecto con la causa, y se juzga que de la enseñanza y la literatura de una lengua es de los que recibe ésta la vida, cuando es todo lo contrario. La literatura no descende al pueblo, sino que de él brota y se levanta. No son las escuelas las que hacen necesario el uso de la lengua, sino que de la necesidad de este uso nacen las escuelas. ¿Qué autor escribirá en lengua que nadie entienda?; ¿qué escuela se verá concurrida como en ella se dé la enseñanza en idioma que para nada sirva? Hagamos los vascos que el uso del euzkera sea necesario en nuestra tierra, si queremos que el euzkera viva”. Urteak eraman ditugu hezkuntza-sailean, euskara indarberritzeko neurri operatiboak hartzen eta lortuz gindoazen emaitzak ebaluatzen. Mende-heren batez bizi izandako esperientziaz, eta handik jasotako eskarmentuaren argitan, zera esan dezakegu: Sabino Aranak 1901ean egindako baieztapen hori aski arrazoizkoa da. Ikus, diogunaren indargarri, Zalbide 1991, 1998, 2000, 2002a eta 2007. Mundu mailako perspektiba zabalerako ikus J. A. Fishman-en *Limitations on school-effectiveness in connection with mother tongue transmission*⁵².

52. Leku batean baino gehiagotan eman da artikulu hori argitaratu. Gaurkoan iturri honetaz baliatu gara: 1991ko Reversing Language Shift, 368-80 or.

Deigarria da zinez: Joshua A. Fishmanek XX. mendearen bukaera aldera ateratako ondorioa, askoren belarri-mingarri gertaturikoa, baieztaturik zeukan Sabino Aranak, labur eta argi, mende-hasieran.

d) **Euskaletza osoa giza arteko mintzajardunaren perspektiba sozialean txertatu behar da.** Bere indarguneak eta bere ahuldadeak non dauden eta zenbatekoak diren jakin behar du euskara indarberritzeko estrategia definitu nahi duen euskaldun-jende adituak, eta euskara indarberritzeko *status*-plangintza osoa ezagutza horren arabera moldatu. Bistan da soberania territorial osoko situazioak asko erraztuko lukeela euskara indarberritzeko saioa (hori baino gehiago zioen berak⁵³: kolpe batez-edo jarriko litzateke euskara, egoera hori eskueran izaenez gero, konponbidean). Egoera hori eskueran ez denez, ordea, beste bide bati heldu beharra dago: goitik beherako *status*-plangintza ezin aplikatu litekeen, saia gaitzen behetik gorako *plangintza* moldatzen eta hezuramaitzen, beharrezko hizkuntza bihurtuz euskara eskualde, jardun-gune edo harreman-sare batzuetan. Bere hitzetan esanik: “como el pueblo vasco alcanzara su⁵⁴ todo sería cuestión de una plumada de gobierno, y la necesidad del uso del euzkera se extendería a todo el territorio. Pero en el presente estado de⁵⁵ vasca y de⁵⁶ franco-hispana, sólo de la iniciativa e influencia particular puede esperar el euzkera hacerse necesario

Deigarria da zinez: Joshua A. Fishmanek XX. mendearen bukaera aldera ateratako ondorioa, askoren belarri-mingarri gertaturikoa, baieztaturik zeukan Sabino Aranak, labur eta argi, mende-hasieran

53. Inor gutxi izenpetuko luke gaur, hain erraz eta hain mugagabe, baieztapen hori: independentziarik gabe atera zen hebraiera aurrera (batez ere 1880-1935 epealdian), eta 1922tik honako independentziak ez dio irlanderari, ia ehun urteren buruan, amestutako salbamenik ekarri. Nekez uka liteke, halere, gainerako baldintza demografikoak, ekonoteknikoak eta soziokulturalak berdinak edo berdintsuak balira burujabetza territoriala ahuldutako hizkuntzaren alde letorkeela, ez kontra.

54. Hutsunea JELeke berak autozentsuraz egina.

55. Berriro autozentsurazko hutsunea.

56. Berdin.

en extensión relativa, y apto, en absoluto, de llenar el uso a que se aplican las otras lenguas en la vida moderna". Ordura arte karta bakarrera jokaten ari izandakoa (independentzia izanik helburu bakar) ezker-eskuin mugitzen hasten da: "ahal denean ahal den hoberena", horra hor Aranak 1901eko irailean hizkuntza-plangintzaren *status*-alorrari begira egindako proposamena.

Aldaketa handia zekarren paradigma berri horrek. Nabarmen aldentzen zen formulazio hori, adibidez, 1888ko Sabino Aranagandik. Baita 1890eko hamarkadako alderdi-sortzailearen jardunbide nagusitik ere. Politika alorrean errealmora aldatu zen Sabino 1901eko udazken aldean eta, era berean, euskalgintzaren zenbait atal perspektiba linguozentriko gotorretik soziolinguistikora zabaldu eta birmoldatu zuen. Duda egin du askok, Sabino

Ordura arte karta bakarrera jokaten ari izandakoa (independentzia izanik helburu bakar) ezker-eskuin mugitzen hasten da: "ahal denean ahal den hoberena", horra hor Aranak 1901eko irailean hizkuntza-plangintzaren *status*-alorrari begira egindako proposamena

Aranaren 1901eko aldakuntza horiek noraino izan ziren benetako, eta noraino unean uneko beharri-zanak hala eragindako taktika huts. Politika kontuak hartan aditu direnentzat utzirik, gatozen gurera, euskalgintzaren alorrera alegia. Bistan da grafizazio-, gramatikazio- eta onomastika-berritze alorrean lehengo lepotik izan zuela Sabinok, gero ere, burua. Handik oso gutxira hil zen ordea, eta heriotza goiztiar hura tarteko izan ez balitz ezin jakin liteke 1901eko paradigmak zer neurritan astinduko zukeen Arana berria. Bistan da bere jarraitzaile kualifikatuenetako batek, Koldo Eleizalde, paradigma berriaren ildotik aurrera egin zuela gogotik (ikus Oñatiko 1918ko bere hizkuntza-plangintzazko txosten ezaguna) eta beste zenbait jeltzalek ere, tartean Seber Altubek, aranazale ortodoxoen oso bestelako *corpus*-plangintza bideratu zuela bere bizialdi luzean. Hemen

azpimarratu nahi dena bestetik da, ordea: *corpus*-plangintza autonomorik (orobat *acquisition planning* edo *eskuratze*-plangintza beregainik) ez zuen Aranak 1901ean ontzat eman. Ordura arte inork ezarri gabeko *Rubicon* kontzeptual sakona ezarri zuen berak, gure artean. Implizituki onartua zegokeen hori, seguruena, hainbaten jardunean. Ez, ordea, kontzeptualki esplizitatua eta ez, praktikan, gure arteko inork inon aplikatua. Sabino Aranaren merezimendua da hori guztia.

Hiru eratako plangintza egin nahi izan zen, funtsean, Hendaian. Hasieran, argi eta berariaz azaldurik, bi helburu zituen biltzarrak: euskararen barne-osaeraz gogoeta egitea, batetik; euskaren ortografia bateratze bidean jartzea, bestetik. Gero (arratsaldez), bilerak aurrera egin ahala eta aurrez hartarako asmorik izan gabe, euskara indarberitzen laguntzeko euskaltzale-elkartea sortu eta zabaltzea proposatu zen: hots, *bottom-up* moduko *status*-plangintza jarri nahi izan zen abian, ortografia kontuaz aparte. Goizeko bi helburuetarik, lehenengoari ez zitzaion antza jaramon handirik egin: Aranak berak argi ikusten zuen zazpi probintziatarik (lehenengo aldiz historian, itxuraz) euskalari eta euskaltzale mordoska bildu bazen biltzar batean bilera hori ezin zitekeela izan euskararen barne-osaeraz gogoeta egiteko, gauza praktikoagoa abian jartzeko baizik: ortografia bateratze-bidean jartzeko. *Corpus*-plangintzaren alorrean sartzen zen hori, bete-betean, eta hartan zentratu zen Arana erabat. Beste inork ez bezala berariazko txostena idatzirik ekarri zuen biltzarrera, eta jendaurrean (ez nekerik eta gorabehera malkartsurik gabe) irakurri.

Hau da, gure ustez, Sabino Aranaren Hendaia txostenaren atal soziologikoaren muina: bere jardun-esaparru (funtzional, espazial edota sinboliko) propioa behar du hizkuntza orok, biziko bada. Inork disputatuko ez dion esparrua. Esparru handia edo txikia, horretan ez dago ezinbesteko neurri estandarrik; baina berea. Bere etxe horretan nagusi bakar izan liteke, edo beste (normalean handi-indartsuago) baten uztarkide suertatuko da, bakoitzak bere funtzio-banaketa egonkorra duelarik⁵⁷. Gauza bat du, ordea, hizkuntza orok ezinbesteko: bere gizarte horretan indarrean dagoen *social reward* sistemari egoki txertaturik egon behar du. Harreman-sare edo funtzio batzuetan jarduteko

57. Diglosia konturik ez zuen, jakina, Aranak Hendaian aipatu. Diglosiaren kontzeptutik ez zebilkeen hain urrun, halere, "en grande o pequeño círculo" eta "en parte" zioenean. Azken puntu horretaz ikus Zalbide 2011a.

beharrezkoa edo onuragarria izan behar du bertako hiztunentzat. Hizkuntza hori ez dakitenek sentitu egin behar dute ez jakite horren galera edo kaltea. Hori gabe, alferrik-edo da gainerako guztia. Euskarari jardun-esparru, harreman-sare eta funtzio-sorta jakina atxikitzen eta errespetatzen bazaio, nahi bezain handia ez bada ere, posible izango du hizkuntzak bizirik ateratzea. Bestela ez. Status-plangintza horri eskerrak bereganatu berriak dituen gizarte-funtzio horiei ongi erantzun ahal izateko, jakina, berariazko corpus-plangintza beharko du euskarak. Aranek behar-beharrezkoa ikusten du euskararen ortografia bateratzea, ohiko hitz-altxorra garbitzea eta terminologia berriak sortzea, hizkuntz eredu funtzional, osabete, malguak lantzea. Nola esango du bada ezetz, beti horretan dabilenak! Biak dira beharrezkoak, baina lehenengoa lehenen. Berriro ere bere hitzetara itzuliz, “para que el euzkera se levante y viva son indispensables á la vez dos cosas: hacerlo necesario para la vida, en grande o en pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto de satisfacer esas mismas necesidades”.

Nolakoa izan zen beraz Sabino Aranaren 1901eko plangintza-saioa? Itzul ditzagun begiak, une batez, Einar Haugen-en 1983ko matrize berritura, batetik, eta handik aurrera azaldu diren dikotomia operatiboetara: *lurralde-* ala *norbanako-* irizpidea; *eskuratze-*plangintzarik *bai/ez*; *goitik beherako* ala *behetik gorako* plangintza; eta, azkenik, *berariazko* ala *urrez aurreko* plangintza. Elementu horien argitan honela kalifika liteke Aranaren 1901eko saioa:

a) Batez ere *corpus-*planning saioa izan zen 1901ekoa. Ez corpus-plangintza zabala, hartarako lehen pausoa baizik. Konkretuki 2. gelaxkako *kodifikazio-* lana eta, are konkretuago, Haugen-ek 2. lerroan *graphization* izendatu zuena. Euskal ortografia bateratzen hasteko proposamena;

b) 1901eko saioa ez zen, ordea, hori bakarrik izan. Horren aurretik, eta gure ustez horren gaineratik, ortografia batzeko saio hura *status-*planning baten altxoan txertatu beharra aldarrikatu zuen espresuki, eta hartarako dei egin. Euskararen *status-*egoera indartu gabe, espazio territorial edo soziofuntzional batean edo bestean nabarmen hobetu gabe, alferri-lana zatekeen ortografia bateratzen saiatzea;

c) Lurralde osoan (biztanle guztiengan) aplikatzea nahi zukeen Aranek plangintza “ona”. Hori

ezinezkoa zenez, ordea, norbanakoen alorrera mugatzea proposatzen zuen saioa: bai *status-* eta bai *corpus-*plangintza. Zehazkiago, ortografia alorrean ezinbestekoa izango zen adibidez Hendaiaiko prozeduran parte har zezatenek handik aurrera han adostutako ortografia erabiltzea. Hartarako konpromiso pertsonala hartzea planteatzen zuen abandoarrak. Konpromiso pertsonala edota, zenbait biltzarkideren kasuan, zuten arduragatik (aldizkari baten zuzendari edo arduradun...), korporatiboa;

d) *Acquisition* edo *eskuratze-*plangintzarik ez zen berariaz planteatu Hendaian. Bilera ez zen horretarako. Inork ez zuen esan halakorik egin beharko ez zenik, baina (dakigunaren argitan) 1901eko bilera hartan ez zen gai hori luze-zabal tratatu. Gauza bakarra esan zuen Aranek, horri zegokionean: alferrik zirela (haur erdaldunak euskalduntzeko) euskal eskolak, horrekin batera edo horren aurretik euskararen *status-*egoera neurri batean edo bestean zurkaiztu eta euskararen behar moduren bat gizarteratu gabe;

Hau da, gure ustez, Sabino Aranaren Hendaiaiko txostenaren atal soziologikoaren muina: bere jardun-esparru (funtzional, espazial edota sinboliko) propioa behar du hizkuntza orok, biziko bada

e) Era berean, Haugen-en laugarren gelaxkako elaboration (*functional development*) delakoa ez zen Hendaian aurrez aurre tratatu. Literatura bidezko hizkuntza landu eta gaitzea, Heinz Kloss-en 1952ko eta 1967ko *Sprachsbau* edota ingeles-munduko *elaboration* (partez *cultivation*) delakoa, nolnahi ere, *status-*plangintzarekin batera (ez hura gabe edo haren aurretik) egin behar zela azpimarratu zuen Sabino Aranek. Bilera hartan ez zen berak hain gogoko zituen hizperrigintzaz edota estilo-lanketaz ezer handirik esan. Ezertxo ere ez agian.

f) Goitik behera eta berariaz egiteko lana zen, Aranaren ustez, hizkuntza-plangintza. Ezinezkoa izanik hori gizarte-giro hartan, behetik gorako

status plangintza aldarrikatu zuen, hartarako zabalik utziaz bai aurre aurreko eta bai bide batezko jardun-bideak.

Laburbilduz: ongi jositako argudio-sorta eskaini zuen Aranak Hendaian, euskararen ahuldadeak eta sendabideak gizarte-bizitza berriaren argitan analizatu ahal izateko. Transformazio ekoteknikoaren, urbanizazio azeleratuaren eta bestelakotze demografikoaren eskutik luze-zabaleko mintzaldaketa eta transetnizazioa eragiten ari zen, Bizkai-Gipuzkoetan batez ere, modernizazio-prozesua. Gizarte-aldaketa horrek berekin zekarren *social reward* sistema berria oso begien aurrean zeukan abandoarrak noski. Gizarte-berrikuntza horren ondorio soziokulturaletan zentratu zen bera, bilarren berezko aztergai zen ortografia kontuari heldu aurretik. Hortik abiatu, grafizazio-lanerako proposamen konkretua planteatu zuen Hendaian. Itxura guztien arabera, Aranaren proposamena aurkeztu, eztabaidatu eta onartu egin zen bertan. Gero, beste kontuak dira horiek, han hartutako bidea aldatuz joan ziren batzuk eta besteak. Aranak berak, une batez, oker bidetik jo zuen besteek bere proposamena, Hendaia biltzarrak adostu eta onartua, itxuraldatzen ari zirela ikusirik. XX. mendearen zati on bat han galdutako aukera berreraikitzen pasa dugu euskaldunok.

Laburbilduz: ongi jositako argudio-sorta eskaini zuen Aranak Hendaian, euskararen ahuldadeak eta sendabideak gizarte-bizitza berriaren argitan analizatu ahal izateko

III.- ZER IBILBIDE ETA ZER SAIO IZAN DU GURE ARTEKO HIZKUNTZA-PLANGINTZAK, XX. MENDEAN ZEHAZKI?

Luze joko luke, askok uste baino ondotoz luzeago, hizkuntza-plangintzak gurean, XX. mendean zehar, izandako ekinbide eta ekintza-saioak

banan-banan zehaztea. Nahita ere ezin da, gaur-gaurkoz, halakorik bat-batean egin. Aurrelanak falta dira horretarako, haietariko zenbait txukun abiatu badaude ere⁵⁸. Egin gabe dagoen lana da hori: egin gabe dagoena eta egunen batean, ahalik arinen, bideratu beharko dena. Ez da hau, bistan da, puntuz puntuko lan horretan hasteko lekua. Gehienik ere mende osoan barrena ezagutu izan diren ekimen-aldi eta ekimen-saio ustez garrantzitsuenak biltzen eta zerrendatzen has gaitzke, kontuan hartu beharreko beste hainbat ekimen, pertsona eta ingurumen alboraturik gelditzen direla jakinik. Sintesiak badu, bistan da, arrisku hori ere: goian esandako azterlan zabal eta sakonagoa egiten denean, hemengo hainbat puntutan emango dugun azalpena errotik aldatu beharra izango da. Hori horrela dela onartuz esan dezagun, labur beharrez, zerrendatze-lan honen arabera zortzi ekinaldi izan direla XX. mendean, 1901ekoaz geroztik, nagusi:

- *Dot*-esparruko “grass-roots” euskalgintza: Ebaristo Bustintza “Kirikiño”-ren eragina.
- *Det*-esparruko euskalgintza jaso-asmokoa: *Euskal Eснаlea* eta Gregorio Mujika⁵⁹.
- Oñatiko biltzarrak: goi-mailako *identity-planning*. Koldo Eleizalderen gidaritzak.
- Euskaltzaindia 1920-1950. Resurrección Maria Azkue lemaiz.
- 1927 eta 1936 arteko hizkuntza-lantzeko euskalgintza: Aitzol, Mokoroa, Lizardi eta Altube.
- Euskararen batasuna: 1956-1964-1968-1978;
- 1960-80: euskalgintza berria: Rikardo Arregi, Zeruko Argia, Jakin
- Herri-aginte sorberriek 1978tik aurrera antolatutako hizkuntza-plangintza.

58. Lurdes Otaegik Lizardiren inguruan egindakoa abiaburu egokia da, esate baterako. Ikus Otaegi 1987 eta 1994. Joxe Azurmendik Orizez egindako biak (Zer dugu Orixen alde?; Zer dugu Orixeren kontra?), perspektiba zabalago batetik, arras alboraezinak. Beste askoren lanak ia landu gabe daude ordea. Deigarri da zinez, bereziki, Velez Mendizabalaren ekarpen biografiko interesgarriez aparte hizkuntza-soziologiaren eta hizkuntza-plangintzaren aldetik Seber Altube hain landu-arin egotea.

59. Beste zenbait alorretan ere funtsezkoa izan zen Gregorio Mujika. Tartean, Oñatiko Biltzarrean.

<p>1.- dot-esparruko “grass-roots” euskalgintza: irakurle arruntak erakarri, euskararen prestijioa indartu eta idazle berriak sortzea.</p> <p>Ebaristo Bustintza⁵</p>	<p>XX. mendearen lehen hiru hamarkadetan dot-esparruko (batez ere Bizkaiko) euskal idazlerik jorriena, bai eta itxuraz irakurriena. Proselitista politikoaz gainera⁶, eta horren gainetik, euskal identity planning osabetezkoaren bultzatzaile sendoa. Horrekin batean behetik gorako euskalgintza xume-praktikoaren funtsezko zutabe Bizkaian, 1902tik 1929ra artean. Euskal irakurleen biltzaile eta erakarle. Euskaldun xehea zuen gogoan: hic et nunc hartako euskaldun arrunta, demografikoki ugaria. Ez zuen ehun urte geroagoko jende euskaraz ikasiarentzat idazten, bere garaiko euskaldun arruntentzat baino. Hizkuntza ere, hartara modulatzeko gogor (eta arrakastaz). Sabino-ren grafiaz baliatuz eta bere hainbat hizperri txertatuz batetik, baina berrikuntza horiek eguneroko hizkera xumearekin konbinatuz bestetik, herritarrentzat eskuragarri izan zitekeen estilo-eredu baten sortzaile eta hedatzaile dugu Kirikiño. Benetako irakurle posibleen mailara egokitzen saiatutako euskalgilea, idazlan erraz, labor eta atseginak egiten saiatua. Cultivation-aukera baten eredu eta bidegile. Gai aldetik, euskara-erdaren orduko egoera euskalgintzaren perspektibatik zorrotz eta argigarri azaldutako idazlea.</p> <p>Sabino Aranaren sorturiko garbizaletasun-ereduari eutsiz, baina lanketa alorrean bide berriak urratuz, abandoarrak (euskaldun berri mugatua izanik) nekez egin zezakeena bideratu zuten “euskal idazlebarrijek”: jolas-giroko hizkera-molde bizi-piperduna kaleratu izana.</p>
<p>2.- det-esparruko euskalgintza jaso-asmokoa: Euskal Esnalea eta Gregorio Mujika</p>	<p>Det-esparruko euskalgintzaren antolatzaile, bide-urratzaile eta, Gregorio Mujikari eskerrak, indar-emaille jarraikia izanik da Euskal Esnalea, mende-laurden batez. Euskara handiki-soinekoz janzten biziki saiatua, hitzaldi eta artikulu. Honela dio Auñamendiren Eusko Entzikopediak: “La idea partió de una reunión celebrada en la Diputación de Guipúzcoa bajo la presidencia de Don Arturo Campión, el día 21 de diciembre de 1906, fiesta de Santo Tomás. El primer día de abril del año siguiente, 1907, en asamblea celebrada en Zumarraga se aprobaron los estatutos y surgió a la vida la Sociedad Euskal Esnalea que acogió por lema la exclamación de Campión ¡Gora Euskara maitagarria! Desde entonces comenzó una acción intensa de mítines, fiestas y conferencias”. Euskal Esnalearen babesle edota bultzatzaile izan ziren Arturo Campión, Patrizio Orkaiztegi, Karmelo Etxegarai, Domingo Agirre, Julio Urkixo, Serapio Mujika, Alfonso M. Zabala, Casildo Zabala, Larreta Azelaingoa, Basilio Iraizoz, Ixaka Lopez Mendizabal, Emeterio Arrese eta Jose Eizagirre. Gregorio Mujika izan zen ekimen osoaren buru eta hauspo⁷. Euskarari jardun-gune berriak irabazteko saioa izan zen Euskal Esnalearena, ahozko jardunari idatzizkoa erantsiz.</p>
<p>3.- Oñatiko biltzara: identity planning eta goi-mailako gogoeta-leku. Koldo Eleizalde</p>	<p>Euskaltzaindia sortzeko onarpen soziala jendarteratzeaz gainera, aurrera begirako identity planning osoaren gogoeta-leku goi-mailakoa. Koldo Eleizalderen txostena, Metodología para la Restauración del Euzkera, elementu zentral izan da bertan. Status-plangintza eta Corpus-plangintza bereizi zituen argi, Sabino Aranaren 1901eko txostenaren ildotik.</p> <p>Status-plangintzari dagokionez, mende-hasieratik zenbait euskaltzalek (tartean Iruñeko Arantza-di legelariak eta Iparraldeko Broussain medikuak) azpimarraturiko emulazio-irizpidea aldarrikatu zuten: dezakeen jendeak (hots, “Oñatin bildurik gaudenok eta gure antzekoek: aberatssek baino areago, profesio liberaletako jendeak eta apaiz-jendeak”) euskaraz egin behar dugu: bai etxean, bai lagunartean eta bai jendaurreko bizibidean. Dezakeen jendeak euskaraz egiten duela ikustean, herri xeheak ere jaun-andere horien bidetik joko du”⁸.</p> <p>Corpus-plangintzari dagokionez, ortografian, fonetikan eta euskalki-batasunean ikusten zituen eginbehar nagusiak: Sabino Aranaren idazkera fonetistatik, batez ere dot-esparruko bustiduratik, aldendu egin zen hainbatean, morfofonologiako grafemizazioa hobetsiz. Euskalkien batasun-bidean ikusten zuen, halere, eginbeharrik eta auzi-arriskurik gogorrena. Sabino Aranaren Hendaian esandakora itzuli zen hainbat elementutan eta, maisuagandik corpus-plangintzaren elementu jakinetan aldendurik ere, hizkuntza-plangintzaren eraikuntza osoaren irudi erakargarria aurkeztu zuen.</p>
<p>4.- Euskaltzaindia, 1919-1950: R. M. Azkue</p>	<p>1919an sortua, XX. mendeko corpus- (eta, 1960ra artean bederen, status-) plangintza euskaltzalearen bide-urratzaile nagusi, babes-emaille eta goi-jagolea. 1919-1923 epean, “nolako euskara behar dugu” galderari soziolinguistikoki erantzun nahirik funtsezko gogoeta-leku eta eztabaida-gune. Handik aurrera, gero eta kodifikazio-lanean zentratuagoa (baina ikus, aurreraxeago, Altube euskaltzainaren jarduna).</p> <p>Azkue euskaltzainburu: XX. mendearen lehen erdiko corpus-plangintza osoaren lema. Lehen mailako hiztegi-gile eta gramatikagile. Gipuzkera osotuaren moldatzaile. Goi-mailako prosa landuaren bide-urratzaile. Euskara-irakasle eta hizkuntza L2 gisa ikasteko testu-prestatzaile. Bertako etnokultura jatorriaren biltzaile zabal (kantu, ipuin, esaera, jolas) eta moldatzaile. Euskaltasun jantziaren ikur eta bidegile.</p>

<p>5.- 1926-1936 epeko euskalgintza hiritarra: Aitzol, Mokoroa, Lizardi eta Altube.</p>	<p>Euskalgintzaren barizentroa Bizkaitik Gipuzkoara pasa da. Zenbaiten leitmotiv argia: "euskara gai da, gizarte berriaren mintzabide trebe eta baliagarri izateko. Azal oriztaren pean muin betirakoa landu, garatu eta eguneratzea da kontua". Elaboration-lanketa literatura jasoa, epopeia herritarrean. Hizkuntza cultivation eta elaboration bidez, batez ere literaturaz salba litekeeneko ustea gogotik indartzen da lehen aldi batean. Grafia eta, bereziki, lexiko zein sintaxi alorrean bide zaharrari begirune handiagoz eusteko saioa. Baita euskara eskolara eta prentsara eramateko saioa ere. Gero, 1931tik-edo aurrera, inoiz gutxitan egin den bezalako analisi autokritikoari ekiten dio bertako hainbat buru-langilek. Cultivation eta elaboration alorrean aparteko aurrerapausoak eginik ere, Aranak iragarritako moduan horrekin bakarrik ez dela aski antzematen dute, eta irten-bide egokia planteatzen hasten dira. Guztietan Altuberena da, egungo teoria soziolinguistikoaren argitan, baliagarriena.</p>
<p>6.-Euskararen batasuna: Mitxelena, Txillardegi, Aresti, Villasante.</p>	<p>Euskaltzaindiaren 1956ko, 1958ko eta 1959ko biltzarrak. Baionako 1964ko ekitaldia, Arantzuko 1968ko Biltzar famatua eta Euskaltzaindi barruko jarduna, 1968tik 1978ra artekoa.</p> <p>Ortografia bateratzea aski aurreraturik dago kodifikazio aldetik; onarpen zabala jasotzen ari da, itxura guztien arabera: handiagoa halere gogoko izateari dagokionez, ikasteari eta, bereziki, erabiltzeari dagokionez baino. Gramatikazko eredu aski landua, eta hiztegi alorrean aurrerapen ohargarriak egin dira ohiko hitz-altorra biltze eta egungo beharretarako lexikoa (batez ere prosari dagokiona) kodeztatze aldetik. Modernizazio terminologikoan ere pauso bat baino gehiago eman da azken berrogei urtean.</p> <p>Txillardegik (Baiona, 1964) eta Arestik (poesia bidez) hainbat pauso emanik dituzte hizkuntza-eredu batuaren alde. Mitxelena izanik da ordea, bai langintza horien aurretik eta bai 1968an Arantzazun, batasun-bidea goi-erpinera eramane zuena. Teorizazio-lan handia eta bertako soziologiaren ezagutza sakona antzematen da Koldoren baitan: Pragako eskolaren hainbat aurrerabide oso barruan ditu, eta Hein Klossenak ere bai. Aplikazio-lan isil baina jarraikian eragin bizia izanik du, orobat, Luis Villasante orduko euskaltzainburuak.</p>
<p>7.- 1960-80: euskalgintza berria: Rikardo Arregi, <i>Zeruko Argia, Jakin</i></p>	<p>Gerra bizi izan gabeko belaunaldi berriaren euskalgintza. Corpus eta status, paradigma berrien sortzaile. Euskal kantariak, literaturgileak, alfabetatze-mugimendua, euskal eskola (ikastolak), modernizazioak eta kaletartzeak eragindako irakurlego zabala, euskaltzetasunaren bide berrien bilaketa: hori guztia edo gehiena euskalgintza berri haren labearen erretako opil dira. Aparteko pisua izan zuen langintza berri haren gogoeta-saioan Rikardo Arregik. <i>Zeruko Argia</i> eta <i>Jakin</i>, zein bere esparruan, gogoeta-lan askoren agerleku eta bilgune izanik dira. 1980tik honako euskalgintza instituzionalak ere han ditu zenbait erro eta oinarri: egungo euskal eskola nekez uler liteke orduko ikastolagintza gabe, orobat helduen alfabetatze-saila, liburu- edo irratigintza, etab.</p>
<p>8.- 1980tik honako hizkuntza-plangintza: herri-aginte sorberrien gidaritza.</p>	<p>Behetik gorako plangintza baztertu gabe, lehenengo aldiz historian goitik-beherako status-plangintza egiteko aukera sortu da EAEn eta, partez, Nafarroan. Mugatuagoa da saioa Iparraldean. Personality principle delakoan oinarritzen da EAeko saioa eta Nafarroan biatarikoa da: territoriality-irizpidea du bertako zonifikazioak, batetik, eta horren barruan (euskal eremuan norbanako irizpidea da, berriro, gidari). Euskarazko irakaskuntzaren etengabeko hazkunde (unibertsitate-esparruan ere bai; lanbide-heziketan apenas). Komunikabideetako sarbide ohargarri baina mugatuagoa. Administrazioan eta gizarte-zerbitzuetan.</p>

IV.- NOLA DEFINI LITEZKE EKINTZA-SAIO HORIEK SABINO ARANAREN 1901EKO PARADIGMAREN ARGITAN?

Nola defini litezke ekintza-saio horiek Sabino Aranaren 1901eko paradigmaren argitan? Zer neurritan izan dira corpus-plangintza alorrekoak, eta zer neurritan status-plangintzakoak? Zer neurritan izan dira top-down edo goitik beherako plangintza, eta zer

neurritan behetik gorako edo bottom-up modukoak? Zer neurritan izan da Sabino Aranaren planteamendua kontuan, corpus- eta eskuratze-plangintza bideratzerakoan? Ondoko taulak eman nahi du, labor bildurik, aurreko hiru ataletan zabalxeago esandako guztia laborpen moduko azalpena.

Zer saio	zer		non		gaitasun-lanketa		nola		berriaz	bide batez
	status	corpus	lurraide osoan	norbana	bai	ez	top-down	bottom-up		
Arana 1901	+ ⁹	+		+ ¹⁰			(+) ¹¹	+	+	+
1	(+)	(+)		+				+		+
2	+	(+)		+			(+) ¹²	+	+	+
3	+	+	(+)	+ ¹³					+	+
4		+	+	+	+		+		+	
5		+		+	+			+		+
6		+	+	+	+		+	+	+	
7	+			+	+			+		+
8	+		+	+	+		+		+	

Taula honek zera erakusten digu, besteak beste: euskara indarberritzeko saialdi asko egin dela Euskal herrian, XX. mendean. Indarberritze-saio horien barizentroa Lapurdi-Baionetan eta, bereziki, Billbon izatetik Gipuzkoara eskualdatu zen, 1925etik aurrera, eta han jarraitu izan du mende osoan. Cultivation eta elaboration-lanketa alorrean egin dira aurrerapen handienak: urruti gelditzen dira orain, eta aukeran motx, mende-hasierako hainbat lorpen. Egia da ordea, guztiarekin ere, perspektiba globalaren aldetik gutxitan, oso gutxitan, eskuratu izan dela Sabinoren 1901eko formulazioaren goi-maila. Horrek du merezimendua, inor gutxik aitortu eta aitortzen diona.

BIBLIOGRAFIA

- Aitzol (1934): "Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa", in Yakintza, II, 353-365 eta 431-438 or.; III, 33-42 or. eta 114-125 or.
- Altube, Seber
- (1920): "Izkuntz jakintzia eta euskeriaren bizitzia", in Euskera, 2. urtea, 1. zkia.
 - (1933): "La vida del euskera: divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa", in Euskera, 14. urtea, 4 zkia.
 - (1936): "Más sobre la vida del euskera / Barriro euskeraren bizitzari buruz", in Euskera, 17. urtea, 1-4. zkiak.
- Arana, Sabino (1896): Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino. Bilbao: Tipografía Amorrotu.
- Argente, J. D. (1988): "Language Contact, Language Conflict and Generalized Bilingualism Policies", in II. Euskal Mundu Biltzerra. II. Atala: euskara eta gizartea, 131-44 or. Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Azkué, R. M. (1896): Proyecto de Ortografía. Bilbao: Imp. Artística de Müller y Zavaleta.
- Bustintza Ebaristo: "Kiriño", "Bloa": Edo geuk iñok ez euskeraren alde (1984, Labayru) Egunekoa (1981, Labayru)
- Cobarrubias, J.
- (1983a): "Language Planning: the state of the art", in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman editore, Progress in Language Planning, 3-26.
 - (1983b): "Ethical Issues in Status Planning", in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman editore, Progress in Language Planning, 41-85.
 - (1988): "Normalización y Planificación Lingüística en el País Vasco", in II. Euskal Mundu Biltzerra. II. Atala: hizkuntza eta gizartea, 145-72 or. Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Cobarrubias, J. and J. A. Fishman (eds.) (1983): Progress in Language Planning. The Hague: Mouton.
- Cooper, Robert L. (1989): Language Planning and Social Change. Cambridge: Cambridge University Press.
- Cunnigham, Hamish (1999): "A definition and short history of Language Engineering", in Natural Language Engineering, 5: 1-16. Cambridge University Press.
- Dorian, N. (1994): "Purism vs. compromise in language revitalization and language revival", in Language in Society, 23, 479-494 or.
- Eastman, C. A. (1983): Language planning: an introduction. San Francisco: Chandler and Sharp.
- Edwards, J.
- (1993): "Ethnolinguistic pluralism and its discontents: A Canadian study and some general observations.", in International Journal of the Sociology of Language 110, 5-82 or.
 - (1996): "Language, Prestige, and Stigma.", in Contact Linguistics. Hans Goebel editore. New York: de Gruyter.
- Elizalde, Luis (1919): Metodología para la Restauración del Euzkera "Metodología para la restauración del euskera", in Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin izandako sorrera-ekitaldiaren agiriliburua, 428-439 or. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Elissagaray, Renaud d' (1902): "La guerre contre le Basque", in Eskualduna, 1902-IX-28?
- Ellis, P. B. eta Mac a'Ghobhainn, S. (1971): The problem of Language Revival: Examples of Language Survival. Inverness: Club Leabhar.
- Fellman, J. (1974): "The Role of Eliezer Ben Yehuda in the Revival of the Hebrew Language: An Assessment", in J. A. Fishman (ed.) Advances in Language Planning 427-55 or. The Hague: Mouton.
- Ferguson, C. A.
- (1968a): "Standardization as a form of language spread", in P.H. Lowenberg (ed.) Language Spread and Language Policy: Issues, Implications, and Case Studies. 119-32 or. Washington: Georgetown University Press.
 - (1968b): "Language Development", in Charles A. Ferguson, Thom Huebner (1996), Sociolinguistic Perspectives: papers on language in society, 1959-1994, Oxford University Press US, 40-47 or.
 - (1977a): "Sociolinguistic Settings of Language Planning", in Joan Rubin, Björn H. Jernudd eta Jyotindra Das Gupta, Joshua A. Fishman and Charles A. Ferguson editore, Language Planning Processes. The Hague: Mouton.
 - (1977b): "Language Planning Processes" in Joan Rubin, Björn H. Jernudd eta Jyotindra Das Gupta, Joshua A. Fishman and Charles A. Ferguson editore, Language Planning Processes. The Hague: Mouton.
- Ferguson, Gibson (2006): Language Planning and Education. Edinburgh University Press.
- Fishman, Joshua A.
- (1964): "Language maintenance and language shift as a field of inquiry", in Linguistics 9: 32-70.
 - (1965): Yiddish in America: socio-linguistic description and analysis. Bloomington: Indiana University Press; The Hague: Mouton
 - (1971): "The Impact of Nationalism on Language Planning", in Joan Rubin eta Björn H. Jernudd editore Can Language Be Planned? Hawaii: The University Press of Hawaii.
 - (1972a): The sociology of language; an interdisciplinary social science approach to language in society. Rowley: Newbury House.
 - (1972b): Language and nationalism: Two integrative essays. Rowley, Mass.: Newbury House.
 - (1972): The Sociology of Language. Newbury House. Gaztelaniazko itzulpena: Sociología del lenguaje, 1982. Madrid: Ed. Cátedra.
 - (1974): Advances in language planning. The Hague: Mouton.
 - (1983a): "Modeling Rationales in Corpus Planning", in J. Cobarrubias eta J. A. Fishman ed., Progress in Language Planning, 107-118.
 - (1983b): "Progress in Language Planning: a few concluding sentiments" in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman editore, Progress in Language Planning, 381-3.
 - (1984): "On the peculiar problems of smaller national languages", in González (ed.) Panagani: Essays in Honor of Bonifacio Sibayan on his sixty-seventh Birthday. Manila: Linguistic Society of the Philippines, 40-5 or. Erabilitako iturria Fishman 1989: 368-75 or.
 - (1987): "Language spread and language policy for endangered languages" in Peter H. Lowenberg (arg.) Georgetown University Round Table of Languages and Linguistics. Washington: Georgetown University Press.
 - (1988a): "The Development and Reform of Writing Systems", in Sociolinguistics / Soziolinguistik 16, 43-50 or.
 - (1988b): "Ethnocultural issues in the creation, substitution, and revision of writing systems", in

- B. Rafoth and D. Rubin (eds) *The Social Construction of Written Communication*, 273–86 or. Norwood, NJ: Ablex.
- (1991): *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- (1993): «Exploring an overlooked sociolinguistic phenomenon (The First Congress for Language X)», in J. A. Fishman editore, *The Earliest Stage of Language Planning*, 1-9 or.
- (1993): *The Earliest Stage of Language Planning. The "First Congress" Phenomenon*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- (2001): *Can threatened language be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- (2006): *Do Not Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy*.
- Fishman, J. A. (editorea)
- (1966): *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- (1974): *Advances in Language Planning*. The Hague: Mouton.
- Gardner, Nicholas eta Mikel Zalbide (2005): «Basque Acquisition planning», in *International Journal of the Sociology of Language* 174, 55-72 or.
- Garvin, P. L.
- (1954): «Literacy as a problem in language and culture», in *Georgetown University Monograph Series on Language and Linguistics*, 7, 117-29.
- (1959): «The standard language problem. Concepts and methods», in *Anthropological Linguistics* 1:3, 28-31 or.
- (1973): «Some comments on language planning», in J. Rubin eta R. Shuy (ed.) *Language Planning: Current Issues and Research*, 24-73 or. Washington: Georgetown University Press. Erabilitako iturria *Advances in Language Planning* J. A. Fishman, (ed.), 1974: 69-78 or.
- Gavel, Henri
- (1919): «Necesidad de una lengua literaria oficial y la unificación de la ortografía vasca», in *RIEV* 10, 137-42 or.
- (1930): «Observaciones sobre la Ortografía del vascuence», in *RIEV* 1930, 15-28 or.
- (1933): «Sur l'ortographe de la langue basque» in *Gure Herria*, XIII, 173-84 or.
- Goyhenetche, J. (1993): «Les origines sociales et historiques de l'association Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913)», in *Bulletin du Musée Basque*, 135, 1-68 or.
- Haugen, E.
- (1959): «Planning for a standard language in Norway», in *Anthropological linguistics* 1 (30), 8-21 or.
- (1966a): «Linguistics and Language Planning», in Bright, W. (ed) *Sociolinguistics. Proceedings of the UCLA sociolinguistics Conferences*, 1964. The Hague: Mouton.
- (1966b): *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian*. Cambridge: Harvard University Press.
- (1966c): «Dialect, language, nation», in *American Anthropologist*, 68: 922-935 or.
- (1969): «Language planning, theory and practice», in *Actes du X^e Congrès International des Linguistes*, Bucharest, 1967. A. Grauer editore, 701-711 or. Bucharest, Editions de L'Academie de la Republique Socialiste de Roumanie.
- (1983): «The implementation of corpus planning: theory and practice», in J. Cobarrubias and J. A. Fishman (eds.) *Progress in Language Planning* (269-289 or.) The Hague: Mouton.
- Havráněk, Bohuslav
- (1938): «Zum Problem der Norm in der heutigen Sprachwissenschaft und Sprachkultur», in *Actes du Quatrième Congrès International de Linguistes* (Copenhague) 151-6 or.
- (1964): «The Functional Differentiation of the Standard Language», in Paul L. Garvin (ed.) *A Prague School Reader on Esthetics, Literary Structure and Style*, 1-18 or. Washington D. C.: Georgetown University Press.
- Hiriart-Urruti, J. (1901): «Eskualdun Biltzarrea», in *Eskualduna*, 1901-IX-20.
- Hornberger, Nancy H.
- (1994): «Literacy and language planning», in *Language and Education* 8 (1&2), 75–86 or.
- (2006): «Frameworks and Models in Language Policy and Planning», in Thomas Ricento, *An Introduction to Language Policy*. Wiley-Blackwell, 24-41 or.
- Humboldt, Wilhelm Freiherr von (1801): *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Berralgitalpena. Donostia: Auñamendi, 1975.
- Hornberger, Nancy eta Kendell A. King
- (1996): «Language Revitalisation in the Andes: Can the school Reverse Language Shift?», in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 17-6, 427-41 or.
- (1998): «Authenticity and Unification in Quechua Language Planning», in *Language, Culture and Curriculum* 11-3, 390-410 or.
- Jernudd, B. H. eta Das Gupta, J. (1971): «Towards a theory of language planning», in J. Rubin eta B. H. Jernudd editore, *Can language be planned? Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, 195-216 or. Honolulu: University Press of Hawaii.
- Jimeno Jurío, J. M. (1997): *Navarra: historia del euskera. Txalaparta argitaletxea*.
- Kaplan, Robert B. (2013): «Language planning», in *Applied Research on English Language*: 2 (1).
- Kennedy, Chris (1982): «Language Planning», in *Language Teaching* 1982, 15. alea, 4. zkia, 164-284 or.
- Kloss, H.
- (1952): *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München: Pohl.
- (1966): «Types of Multilingual Communities: A Discussion of Ten Variables», in *Sociological Inquiry* 36: 135-45 or.
- (1967): «Abstand languages and Ausbau Languages», in *Anthropological Linguistics*, IX, VII, 29-41 or.
- (1969): *Research Possibilities on Group Bilingualism: A Report*. Quebec: International Center for Research on Bilingualism.
- Kremnitz, G. (ed.) (1979): «Sprachen in Konflikt. Theorie und Praxis der katalanischen Soziolinguisten. Eine Textauswahl». Tübingen: Narr.
- Liddicoat, Anthony J. (2005): «Corpus Planning: Syllabus and Materials Development» in Eli Hinkel, *Handbook of Research in Second Language Teaching and Learning*, 993-1012 or. Routledge.
- Liddicoat, Anthony J. eta Richard B. Baldauf, Jr. (2008): «Language Planning in Local Contexts: Agents, Contexts and Interactions», in *Language Planning in Local Contexts*, Anthony J. Liddicoat and Richard B. Baldauf Jr. editore, Clevedon: Multilingual Matters Ltd.
- Lizardi (1930-IX-25 12 or., eta 1930-IX-27 12 or.): «Euskera andiki soñekoz» (I eta II). *Gure iturria* Otaegi, 1994: 72.
- Lowenberg, P. H. (ed.), 1987: *Language Spread and Language Policy: Issues, Implications, and Case Studies*. Georgetown University Round Table on Languages and Linguistics. Washington: Georgetown University Press.
- Mackey, William F. (1983): «U.S. Language Status Policy and the Canadian Experience», in Cobarrubias eta Fishman editore, *Progress in Language Planning*, 173-206 or.
- Macnamara, J. (1971): «Successes and failures in the movement for the restoration of Irish». In J. Rubin and B. H. Jernudd editore, *Can Language be Planned? Sociolinguistics Theory and Practice for Developing Nations* (65-94 or.) Honolulu: East-West Center, University of Hawaii Press.
- Mattheier, Klaus J. (1987): «<<Sprachkonflikt». Terminologische und begriffsgeschichtliche Überlegungen», in Oksaar, Els (ed.) *Soziokulturelle Perspektiven von Mehrsprachigkeit und Sprachenwerb*, 289-99 or. Tübingen: Narr.
- McRae, K. D. (1975): «The principle of territoriality and the principle of personality in multilingual states», in *International Journal of the Sociology of Language* 4, 33-54.
- Millan, William G. (1983): «Contemporary models of standardized New World Spanish: origin, development, and use», in Cobarrubias eta Fishman editore, *Progress in Language Planning*, 121-144 or.
- Mitxelena (1982): «Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco», in *Revista de Occidente*, 10-11. zkia., 55-75.
- Morag, Shelomo (1959): «Planned and Unplanned Development in Modern Hebrew», in *Lingua* LXXXVIII, 247-63 or.
- Neustupný: J. V.
- (1970): «Basic types of treatment of language problems», in *Linguistic Communications* 1: 77-98.
- (1989): «Language purism as a type of language correction», in Jernudd eta Shapiro (ed.) *The politics of Language Purism*, 211-23 or.
- Otaegi, L. (biltzale eta paratzaile) (1987): *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak*. Donostia: Erein.
- Otaegi, L. (1994): *Lizardiren poetika*. Donostia: Erein.
- Prague School (Paul L. Garvin, trans.) (1974) (jatorriz 1932koa): «General Principles for the Cultivation of Good Language» in J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning* 417-26 or. The Hague: Mouton.
- Ray, P. S. (1963): *Language standardization: Studies in Prescriptive Linguistics*. The Hague: Mouton.
- Rubin, Joan (1971): «Evaluation and language planning», in *Studies in the History of Linguistics*, Dell Hymes editore, Bloomington, Indiana University Press.
- Rubin, J. and B. H. Jernudd (arg.) (1971): *Can Language Be Planned? Sociolinguistic Theory and Practice for Developing Nations*. Honolulu: University of Hawaii.
- Sánchez Carrión, J. M. «Txepetx»
- (1972): *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970). Iruñea: Institución Príncipe de Viana.
- (1974): «Bilingüismo, Disglosia, Contacto de Lenguas», in *ASFVJU* VIII, 3-79 or.

- (1987). Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas.
- Sibayan, B. P. (1974): "Language policy, language engineering and literacy in the Philippines". In J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning*, 221-54 or.
- Spolsky, B. (1995): "Conditions for language revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori", in *Current Issues in Language and Society* 2 (3), 177-201.
- Spolsky, B. eta E. Shohamy (2001): "Hebrew After a Century of RLS Efforts", in J. A. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved?* (350-63 or). Clevedon: Multilingual Matters.
- Strubell, M. (1998): "Can sociolinguistic change be planned?", in *Proceedings of the 1st European Conference "Private Foreign Language Education in Europe. Its contribution to the Multilingual and Multicultural Aspect of the European Union"*. Thessaloniki, November 1997 (23-31 or.) Palso, Thessaloniki.
- Terracini, B. (1957): *Conflitti di lingue e di cultura*. Venezia: Neri Pozza.
- Unamuno, Miguel: "La unificación del vascuence". *Berragitaratua in Obras Completas* (IV. liburukia), 271-3 or. Madril: Escelicer (1968).
- Vachek, Joseph (1948): «Written Language and Printed Language» in *Recueil Linguistique de Bratislava*, I, 67-75 or.
- Velez de Mendizabal, J.M.
- (1979): *Sebero Altube*. Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S. A. Donostia.
- (2000): *Sebero Altube (1879-1963)*. Bidegileak. Gasteiz.
- VINSON, Julien
- (1902): "La réunion d'Hendaye et la réforme de l'orthographe basque", in *RLPhC*, XXXIV, 356-61 or.
- (1902): "Encore le Congrès basque de Hendaye", in *RLPhC*, XXXVI, 82-5 or.
- Weinreich, U. (1953): *Languages in contact. Findings and problems*. New York: The Linguistic Circle of New York.
- Wexler, P. (1971): "Diglossia, language standardization and purism", in *Lingua* XXVII, 330-54 or.
- Wiley, Terrance G. (2003): "Language Planning and Policy," in Sandra McKay eta Nancy H. Horberger *Sociolinguistics and Language Teaching*, Cambridge University Press, 103-147 or.
- Wurm, S. A. (1991): "Language death and disappearance: Causes and circumstances", in *Diogenes. Cultural Heritage: Endangered Languages*. Theme Issue 153, 1-18 or.
- XARRITON, Piarres (1985):
- (1985): P. Broussain, sa contribution aux études basques. Paris: CNRS.
- (1987): R. M. Azkue eta P. Broussain-en elkarri-dazketa, in *Iker* 4. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zalbide, M.
- (1987): "Lexiko-berrikuntzaren inguruko zenbait ohar-azalpen", in *Euskera* 32-1, 217-226 or.
- (1988): "Mende hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak", in *II. Euskal Mundu Biltzarra*. Euskara-biltzarra, 398-412 or. Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1990): "Euskal Eskola, Asmo Zahar Bide Berri", in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* 1, 211-271 or. Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1991): "Eskola-giroko hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa", in *Elkarren artean Eskola Hiztun Bila*, 13-43 or. Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1998): "Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas", in *RIEV*, 43-2, 355-424 or.
- (2000): "Irakas-sistemaren hizkuntz normalizazioa: nondik norakoaren ebaluazio-saio bat", in *Eleria* 5: 45-61 or.
- (2002a): "Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?", in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*. Donostia.
- (2002b): Hendaia-Hondarribietako biltzarra: azalpen labor bat" in *Hermes*, 4. zkia., 68-78 or.
- (2003): "Hendai-Hondarribietako biltzarrak, XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu", in *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, 1-134 or. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- (2007a): "Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan" in *Bat: Soziolinguistika* aldizkaria 65, 111-125.
- (2007b): "Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia", in *Euskera* 52, 3., 877-1008.
- (2007c): Euskararen Legeak hogeita bost urte eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa", in *Euskera* 52, 3., 1283-1517 or.
- (2007d): "Pedagogoa batzar nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan: Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia", in *Euskera* 52, 1., 61-157.
- (2009a): "Interferentzia, hitzun garbien galera eta mintzaldaketa: Hiriart-Urrutiren garaiko zenbait korrelato" in *ASJU XLIII*, 1003-1034 or.
- (2009b): "Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan", in *Udaletako euskara-zerbitzuen 1. Topaketak*. Lasarte.
- (2010a): Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2010b): "Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean" in *Bat: Soziolinguistika* aldizkaria, 77 zkia., 27-55 or.
- (2011a): "Diglosia purgatorioaz. Teoriatik tiraka", in *Bat: Soziolinguistika* aldizkaria, 79-80 zkia., 13-152 or.
- Zuazo, Koldo (1988): *Euskararen batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAFIKOETAKO OHARRAK

- Standardization has involved at least two distinct language strategies, one requiring the elaboration and adoption of one variety among others, the other consisting in the creation of a new variety composed of some main dialects. The standardization process involves, among other things, the production of dictionaries, grammars, spellers, style manuals, punctuation and pronunciation guides, specialized glossaries, etc. And it is carried out in many instances by language academies or individuals who do the work of academies.
- Beste izen hau ere ematen dio inoiz Haugen-ek: acceptance.
- Activities such as the production of newspapers, textbooks, books, and other publications, as well as the use of a language for mass-media communication, are part of the implementation process.
- Production and dissemination of new terms is one of the most typical activities of language modernization and elaboration.
- Izengoitiz "Kiriñño", "Mañari", "Bloa" eta abar.
- Sabino Aranaren jarraitzaile agirikoa izan zen beti, ideologia politikoaren aldetik, Ebaristo Bustintza.
- Zehaztasun hauek ere ematen dira bertan: "La revista (fue) órgano de todo el movimiento literario euskérico durante el período de tiempo 1908-1931 en que desaparece con el fallecimiento de Gregorio Mújica. En sus páginas hallaron espacio las poesías premiadas en las Fiestas Euskaras y certámenes suyos, así como multitud de artículos y primeros ensayos de euskera con temas técnicos y científicos".
- Bere hitzetan esateko "En la restauración social del Euzkera, todo debe esperarse de la acción de las clases altas y del clero. Al hablar de clases altas no puedo referirme exclusivamente a las familias ilustres por su antigüedad y cuna. Querámoslo o no, vivimos hoy bajo los postulados democráticos, y en este régimen moderno no representan valor social preponderante los blasones ni los pergaminos. Las clases directoras e influyentes de hoy están representadas, tanto o más que por el nacimiento, por la fortuna y por la cultura intelectual: en ellas figura desde luego la élite de los hombres de profesiones liberales. Esas clases deben dar el ejemplo de la rehabilitación social del Euzkera, en la seguridad completa de que el pueblo seguirá fielmente el buen ejemplo dado desde arriba. La mayor parte de la enseñanza se debería realizar en el idioma y el clero debería utilizarlo".
- Teorizazio-saio ohargarria, orain ere kontuan hartzeko modukoa.
- Izena eman behar da parte hartzeko; horrekin batera, izena ematen duenak konpromisoa hartzen du ortografia hori, ez beste, erabiltzeko.
- Ahal balitz horrela, baina "orain eta hemen" horrela ezin denez...
- Gipuzkoako Aldundiaren babesa du.
- Batez ere "dezakeen jendeari" zuzenduriko proposamena, status-plangintzari dagokionez.